

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Zaldibar

PELLO OTXANDIANO > 11

CARITAS: Postalezko Donostiaren
beste aurpegia; erakusten ez
dena, ikusi nahi ez dena > 12

2020ko otsailaren 15a | XIV. urtea • 659. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



272 OHE HUTS BRASILGO BRUMADINHON

2019ko URRIAREN 25EAN, MEATEGI BATEKO HONDAKIN TOXIKOAK BILTZEN ZITUEN URTEGIA HONDATU ZEN BRASILGO BRUMADINHO HERRIAN. 272 HILDAKO IZAN ZIREN ETA HONDAMENDI EKOLOGIKOA, IZUGARRIA, BRASILEN INOIZKO HANDIENA. TRAGEDIA GERTATU ETA URTEBETERA, EUSKAL ORDEZKARITZA BAT IZAN DA BERTAN, ZAURIA ZERTAN DEN IKUSTEKO. > 4

Douglas MAGNO | AFP



**Brasilgo Minas Gerais estatuan
beste 272 ohe huts** 04

**Kamerun: Gizonik gabe bilduta,
emakumeek sortutako
sexu-musika** 08

**Etorkin gazteen, emakume
zapalduen eta etxegabeen
bazterkeria gorria** 12

Mendazako hiru hankako artea 17

«Erik eta Win», itzala argitara 18

**Dirudiena baino legealdi
nahasiago baten hogeirudi** 22

Sarean 29

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Irlanda

10 **Saioa Aginako Lamarain:**

Pentsamenduen poderioz

11 **Pello Otxandiano:** Zaldibar

16 **EXPRAI**

20 **Arantxa Urbe:** Enpatia
testuinguru digitalean

21 **Iker Barandiaran:** Aurre hartu

28 **Antton Izagirre:** Ez, eskerrik
asko

28 **Miren Azkarate Badiola:** Nola
berrosatuko gara horrela?

30 **Ana Zelaia Jauregi:** Berdea da
Internet? Eta adimen artifiziala?



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Irlanda

Ostiral Santuko bake akordioa 1998ko apirilaren 10ean sinatu zen. Akordio horren zenbait gako aipatu nahi nituzke. Gerra irabazteko aukerarik gabe, baina galtzeko arriskurik gabe, gerraren bidez helburu politikoak eskuratzea ezinezkoa zela jabetu eta gatazkaren konponbidea eta ondorioz helburu politikoak beste modu batzuen bidez lortzen saiatzeko joko araudi berria ezarri zuen Ostiral Santuko akordioak. Joko arau demokratikoak. Alde guztiek Onespen Printzipioa ere onartu zuten, eta, printzipio horren arabera, Irlandaren batasuna eskuratzeke batasunaren aldeko gehiengoak beharrezkoak dira uhartearen hegoaldean eta iparraldean. Bi subjektu politiko egon badirela onartzen zuen printzipio horrek.

Bidea, beraz, argia: hegoaldean zein iparraldean gehiengo elektoralak eskuratu eta horrekin batera uhartearen batasunaren aldeko iritzia hegemoniko bihurtzea. Hori gabe Irlanda zatitua jarraitzea kondenatzen zuen Ostiral Santuko akordioak. Aldiz, batasuna eskuratzeke bidea argitzen eta posible egiten zuen akordioak berak ere. Arriskuz eta aukeraz beteriko akordioa. Sinn Feineko liderrak eta oinarriek harturiko erabakia ausarta eta arrazionala izan zen aldi berean, denbora gero eta argiago frogatzen ari den bezala. Egungo Irlanda zer dago, 1998ko Irlandarekin konparatzen badugu, batasunetik hurbilago edo urrutiago? Garaian irakurketa egokia egin eta erabaki zuzena hartu zutela dudarik ez dago.

Baina, esan bezala, erabaki egokia hartzeak ez zien ziurtatzen bide berrian gauzak ondo egingo zituztenik eta, ondorioz, agertoki berriaren aukerak profita-tu eta haien helburu politikoaren lorpena hurbilduko zirenik. Arerioek ere jokatzeke aukera zuten zela berrian eta trebatuago zeuden eta eskarmentu handiagoa zuten borroka elektoralean. 1996ko Ipar Irlandako Legebiltzarreko hauteskundeetan, hau da, akordioa baino bi urte lehenago, Sinn Feinek bozen %15,5 lortu zituen, SDLP, UUP eta DUP alderdien atzetik. Hegoal-

dera begiratzen badugu egoera are latzagoa zen, 1997ko hauteskunde orokorretan Sinn Feinek bozen %2,5 eta diputatu bakarra eskuratu baitzituen. Emaizta horiek hasiera puntu bezala izanik, estrategia berria aplikatuz helburu zaharren lorpenari ekin zioten. Hauteskunde emaitzak begiratzen baditugu Sinn Fein igo baino ez da egin geroztik, hauteskunde hauteskunde, aurreko astean Irlandako hegoaldeko hauteskunde orokorretan alderdi bozkatuena bilakatu arte.

1998an, agertoki berria, joko arau berriak, arrisku eta aukerak agertzen ziren, baina oso gutxi pentsatuko zuten hogeitaz geroago alderdi bozkatuena bilakatuko zenik Sinn Fein hegoaldean. Uhartearen batasunaren aldeko babesak ere goraka joan da, gazteen artean bereziki; gazteen gehiengoak batasunaren alde dago eta zaharrenean artean bakarrik nagusitzen da unionismoaren aldeko hautua. Brexitaren kontra bozkatu zuen Irlandako iparraldeko biztanleen gehiengoak eta horrek ere, duda barik, batasunaren aldeko ba-

Egungo Irlanda zer dago, 1998ko Irlandarekin konparatzen badugu, batasunetik hurbilago edo urrutiago? Garaian irakurketa egokia egin eta erabaki zuzena hartu zutela dudarik ez dago

besak igoaraziko ditu datozen garai hurbiletan. Bi ondorio nagusi amaitzeko. Sinn Feinek bi gauza lortu ditu. Batetik iparra zein hegoaldea gobernatzeke babes nahikoa eskuratzerik baduela frogatu du. Bere oinarriari zein bere herriari frogatu dio hori, biek ala biek garaipena posible dela sinestea beharrezkoa baita. Borroka politiko elektoralean ere hoberena, babes gehien eskuratzen dituen izan daitekeela frogatu du. Eta horrekin batera Irlandaren batasunaren aldeko babesak gero eta handiagoa da, iparrean zein hegoaldean. Baliteke, ziurrenik esango nuke, datozen urteetan gauzatzea. Gero eta gehiago dira irlaren batasuna denbora kontua besterik ez dela diotenak. Izan bedi. •

BESTE 272 OHE HUTS MINAS GERAISEN

Martin MANTXO

2019ko urriaren 25ean, meategi bateko hondakin toxikoak biltzen zituen urtegia hondatu zen Brasilgo Brumadinho herrian. 272 hildako izan ziren eta hondamendi ekologikoa izugarria izan zen. Euskal ordezkaritza bat izan da bertan hondamendiaren urteurrenean.

Brumadinhoko urtegiak Brasilek jasandako hondamendi ekologiko handiena izan zela diote. Tragedia hura ekologikoa soilik izan balitz bezala. Ez dago konparaziorik egin beharrik, baina, iazko udan bertan, suteek Amazoniaren zati handi bat suntsitu zuten: 29.944 kilometro karratu kiskalita. Parekorik gabeko dramak biak ala biak, egungo Brasilgo gizartearen bi zauri sendaezin. Hori guztia eskuin muturreko Jair Bolsonaro boterera iristearekin batera gertatu zen: Brumadinhoko krimena gertatu baino 24 egun lehenago izendatu zuten presidente Bolsonaro.

Hondamendia gertatu zen lehen egunetik, MAB Urtegiek Kaltetutakoen Mugimendua Brumadinhon izan zen, 2015eko azaroan estatu bereko Marianan izan zen bezala. Marianako esperientziarekin asko ikasi zuten. Handia izan zen bertan gertatutakoa. Orduan, konpainia hidroelektrikoei eta energia enpresei ez ezik, Vale meatzaritza enpresa handiari ere egin behar izan zioten aurre. Eta hori «beste liga bat» da, futboleko hizkera erabiliz gero.

Valeren boterea izugarria da Brasilen. Batez ere Minas Gerais estatuan. Meatzaritzaren ondorioz du estatuak izen hori. Vale konpainiak, berriz, Vale do Rio Doce haranarengatik.

Marianan egon zen MAB mugimendua, kaltetuei lagunduz. Baina ez horretan bakarrik: Brasilera egindako gure bisitan lekuko izan garenez, MAB enpresarekin izandako harremanetan bitartekari ere izan da. Batez ere kaltetuak antolatu ditu eta enpresari aurre egiteko prestatu ditu. Egunotan hildakoei negar egin diegu, baina, batez ere, Valeren eta botere politikoaren aurka borrokatu dugu.

Brumadinhoko hondamendia gogorazteko borrokan, urtarrilaren 21ean, Minas Gerais estatuko hiriburua izan zen protagonista nagusia, Belo Horizonte hiru milioi biztanleko hiria. Bertan daude erakunde arduradunen egoitzak eta Minas Geraisiko botere politikoa. Protestaldia Aita Santuaren Plaza-



Minas Gerais estatuko Belo Horizonte hiriburua paisaia erakargarriak eskaintzen dizkio bisitariari.
Martin MANTXO


tik abiatu zen, pankarta eta bandera artean. Vale konpainiaren krimenak kolpatutako Paraopeba ibaiaren arroan bizi direnen egunerokoaren berri eman ziguten: arrantzaleak beren sareekin, emakumeak ura eta otarrak eramaten, nekazariak lanean... Mila pertsona inguru abiatu ziren oinez, gehien-gehienak Brumadinhoko kaltetuak. Baita Marianako asko ere.

HILTZAILEEN ZIGORGABETASUNA

CUT Langileen Sindikatu Bateratuko kamioi egokitu batek lagundu zuen martxa. Goiko zatia animatzaileak eta hizlariak bertan joan zitezen prestatuta zegoen, eta, behekoan, bozgorailuak zeuden. Kilometro bat egin eta gero, Justizia Auzitegia. Manifestazioak salatu zuen Vale konpainia kriminalaren aurkako ekinbiderik ez zela izan, baita enpresako zuzendaritzako kideen zigorgabetasuna ere: inortxo ere ez dute zigortu. Justiziak egun indarrean den

prozesua azkartzea ere exijitu zuten. MABeko kide batek megafoniatik hitz egin zuen: «Zalantzan jartzen dugu kriminalei biktimei baino askoz ere gehiago entzuten dien Justizia honen papera». Ezin garbiago esan.

Ondoren, martxa ANM Meatzaritza Agentzia Nazionalera zuzendu zen, enpresen arau haustek gainbegiratzeaz arduratzen den instituziora. Erakunde-ari gutun bat eman zioten ibiltariak, ikuskapenarekin lotuta hartzen ari diren neurriak zalantzan jarritz. Nagusi den komunikazio falta ere salatu zuten: prozeduren gainean eta kaltetutako komunitateekin. Presak behar bezala ikuskatzen direla bermatzeko langile gehiago falta direla ere salatu zuten. Ondorioz, inguruko komunitateen segurtasuna kinka larrian dago. Soilik zazpi pertsona arduratzen dira meategien estatuan dauden 840 presak gainbegiratzeaz. Horietako gutxienez 83 urtegi kolapsatzeko arriskuan daude.



Geldialdia baliatuta, Levante Popular da Juventude taldeak Augusto Boalen herentzia aberatsari eta zapalduen buruzko antzerki lana taularatu zuen. Antzerkia erresistentziarako eta klase zapalduen askapenerako tresna gisa.

Bello Horizontetik Pompeura abiatu zen martxa, Paraopeba ibaiak igarotzen duen azken hiria San Frantzisko ibaiarekin bat egin aurretik. Ez da meategiko lokatzak zuzenean kaltetu zuen hirietako bat, baina, ibaia kutsatu egin zenez, krimenak kalteak eragin zituen bertan ere. Vale konpainiarentzat eta herritar askorentzat ez dira kaltetuak, baina argi dago bertakoek ere kalte larriak jasan dituztela. Horixe da MAB mugimenduaren helburua egun hirian: “kaltetu” kontzeptua zabaltzea, Pompeu kaltetutako lekuen artean sartzea eta bertako biztanleek horrela ulertzea, borrokarekin bat egin dezaten.

Martxak hiria zeharkatu zuen, erdiguneko estilo kolonialetako plazan amaitzeko. Bertan megafonia ekipo bat prestatu

Vale konpainiak lagun gutxi ditu iazko tragediako biktimak omentzera joandakoen artean.

Martin MANTXO

Meatzaritzan aritzen den Vale konpainiaren boterea izugarria da Brasilen, batez ere Minas Gerais estatuan. Meatzaritzaren ondorioz du estatuak izen hori. Vale konpainiak, berriz, Vale do Rio Doce harana tarteko

Brumadinhoko hondamendia gogorarazteko borrokan, urtarilaren 21ean, Minas Gerais estatuko Belo Horizonte hiriburua izan zen protagonista. Erakunde arduradunen egoitzak eta estatuko botere politikoa biltzen dira bertan

eta kaltetuak beraien lekukotasuna eskaintzen hasi ziren. Pompeu bertako Queima Fogo kokagunean bizi den Tatiana de Menezes buruzagi komunitarioa MABeko ekintzailea da. Kameren aurrean mintzatu zen, iazko hondamendiaren aurreko bere bizimodua galtzeak eragindako amorru eta frustrazioa akuilu: «Valek mespretxuz tratatzen gaitu. Enpresak nahi duenari aitortzen dizkio eskubideak, bizilagunak elkarren aurka

jarritz. Batzuei kalte-ordainak ordaintzen dizkie eta besteei ez. Komunitateen barruan gatazkak sortzea da helburua».

Protestaldiaren antolatzaileek lehen-tasuneko tratua eskaini ziguten bisitan heldutako nazioarteko ordezkariok. Kurdistango eta Euskal Herriko ordezkariak izan ginen hitza hartzeko ardura izan genuenak. Mesopotamiako Mugimendu Ekologistako Zilemek nazioarteko elkartasuna helarazi zien kaltetuei, eta bere herriak bizi duen setio bortitzaren berri eman zuen: Ilisuko proiektu hidroelektrikoa bukatzeaz da eta urek Hasankeyf 7.000 biztanleko hiri zahar eta sinbolikoa hartuko dute. Euskal Herritik heldutakoek egun batzuk lehenago Berrongo proiektuaren geldialdia erabaki zutela jakinarazi genien bildutakoei. Baita Yesako eta Zangozako egoera ere, bertan ere uholdeen mehatxupean bizi baitira.

Pompeutik protestaldia Juatubara joan zen eta, bertatik, Betimera. Ekitaldi publiko bat egin zen Betimen erakunde

eta sindikatu askoren partaidetzarekin. Zalantzarik gabe, bakarra zen ekitaldiko izar nagusia: Lula. Azkenean, baina, eskualdean izandako ekaitzengatik, presidente ohiak ez zuen bertaratzerik izan.

Leonardo Boff ingurumenaren aldeko ekintzaile eta Askatasunaren Teologiako pentsalari ezagunak erakarri zuen geure arreta. Eliza katolikoak zentsuratuko fraile ohia da. Boffen adierazgarritasuna ikaragarria da oraindik, jada 82 urte izan arren. Berarentzako ere oso argi dago Brumadinhoko krimenaren errua norena den: kapitalismoarena.

Urtarrilaren 22an, martxaren une gorenarena Vale enpresaren tren terminalaren okupazioa izan zen. Bertatik, eskualdean eskuratutako burdina Espirito Santuko porturaino garraiatzen du trenez Valek. Eta, portutik, atzerrira. Beraz, azpiegitura hori ezinbestekoa da meatzaritza enpresarentzat Brumadinhoko burdina Brasiletik ateratzeko. Ekintzaileek azaldu zigutenez, ordu batzuez terminala itxita egoteak hedabideen arreta erakartzeko balio du, baita konpainiakok urduri jartzeko ere, baina benetan enpresan eragiteko lau egun produkturik mugitu gabe izan beharko lirateke.

Martxa Meatzaritza Agentzia Nazionalera zuzendu zen, enpresen arau hausteak gainbegiratzeaz arduratzen den instituzioa. Ikuskapen arloan hartutako neurriak zalantzan jartzen zituen gutun bat entregatu zuten ibiltariek

Leonardo Boff Askatasunaren Teologiako pentsalari ezagunaren adierazgarritasuna ikaragarria da oraindik, jada 82 urte dituen arren. Berak ere argi du Brumadinhoko krimenaren errua norena den: kapitalismoarena

2019ko urtarrilaren 25eko hondamendiaren lehen urteurrenean Brumadin-hora gure elkartasuna adieraztera joan aurretik, ez genekien zer aurkituko genuen. Hondamendian 272 pertsona hil zirela kontuan izanik, minak eta egoerak gaindituko gintuela imajinatzen genuen. Halaxe izan zen. Hori bai, asko izan ziren espero gabeko gauzak ere. Nola ez, testigantzak oso hunkigarriak izan ziren. Bizitzari aurre nola egiten dioten ezagutu genuen.

Urteurrenaren egunean bertan, Juliana Cardosok egin zigun ongi etorria, bere kasua azalduz: senarra eta bi seme-alaba galdu zituen. Gertatutakoa kontatzea kosta egin zitzaion, noski.

Eguzkitik babesteko erabiltzen dituzten aterkiak Minas Gerais-ko inguru beroetan.
Martin MANTXO

Hautsi egin zen, enpresaren eta erakundeen aurkako amorruak jota. Hala eta guztiz ere, irmo kontatu zigun bere esperientzia, bertaratutako mikro eta kameren aurrean. Burdin meategi handiak eta hondakin biltegiak bertan jarraitzen zuten. Egunero sarraskia gogoraraziz. Egunero mehatxagarri.

2020ko urtarrilaren 24an izugarrizko euri jasak egin zituen Minas Gerais-en. 30 hildakotik gora izan ziren eta urtegiek eragindako arriskua beti hor dagoela gogorarazi ziguten. Pentsa, Brumadinho eta 2015ean hondamendia eragin zuen Mariana ez ziren agertu ere egiten arriskuan zeuden urtegien zerrendan. Eta oraindik asko dira arriskuan daudenak, beren antzinatasunagatik edo erabat beteta daudelako. Minas Gerais estatuan 840 urtegi daude, eta horietako 83 daude arriskupean.

KOLAPSATUTAKO URTEGIAK

2019ko otsailaren 8an, Valek 239 pertsona kanporatu zituen Gongo Soco meategiko urtegiko eremutik, Barão de Cocaisen (Minas Gerais), eta, egun horretan bertan, ArcellorMittalek gauza bera egin zuen Serra Azul presatik gertu bizi ziren beste 65 lagunekin, Itatiaiuçun (Minas Gerais). 2019ko maiatzean, Gongo Soco meategian, 500 pertsona kanporatu zituzten beste alarma batengatik. Uztailean beste presa bat kolapsatu zen Quatin, Bahiako ipar-ekialdean. Gure datuen arabera ez zen hildakorik izan, baina 350 familiak euren etxeak utzi behar izan zituzten.

2019ko amaieran, 54 presa debekatu zituen ANM Meatzaritza Agentzia Nazionalak Egonkortasun Baldintzen Ituna ez betetzeagatik edo ez onartzeagatik; horietako 33 Minas Gerais-en daude (16 dira Vale konpainiarenak). Forquilhakoan, urriaren 31n, larrialdi protokoloa aplikatu zuten. 2019ko azaroaren 5ean jakitera eman zen Valek ez zuela indarrean jarri Meatzaritzako Presen Segurtasuna Kudeatzeko Sistema Integratua Brumadinhoko Corrego do Feijão urtegian, baita informazioa faltsua eman ziola ANMri. Valek bazekien Brumadinhon kolapsatutako urtegia egoera txarrean zela.




MAB Urtegiek Kaltetutakoen Mugimenduak kritikatu duen beste alderdie-tako bat ANMk urtegiak monitorizatzeko eta, beraz, segurtasuna zaintzeko kontratatutako langile kopuru txikia da: zazpi besterik ez Minas Gerais osorako (840 urtegi daude estatu osoan). TCU Kontuen Auzitegi Federalaren txosten baten arabera (funts publikoak gainbegiratzear arduratzen den organoa), ANMk 384 funtzionario beharko litzuke. Beharrezko langileen bosten bat baino ez ditu ordea, 79. Brumadinhoren hondamendia gertatu zenean 74 zituen.

MIN JASANGAITZA

Brumadinhon 272 biktima izan ziren. Familiek hondamendiaren urteurrena gogoratzeko egindako ekitaldian izan ginen. Ez dute falta bakarrik senide maitatua, zuzenekoa, baizik eta ezagunak ziren beste asko: lagunak, lankideak, herrikideak... Min jasangaitza komunitate osoarentzat, baina partekatua. Oso zaila da hori imajinatzea ere, zailagoa txukun azaltzea, gutxitan gertatzen baita horrelako zerbait gerra edo hondamendi naturaletan ez bada. Hiletetan batzuek 272 biktimen kamisetak zeramatzaten. Oso txikiak izan behar dira erretratuak kamiseta berean hildako denak sartzeko. Hor konturatzen zara zein kopuru handia den! Imajinatzen zaila delako: Marianako hondamendian 18 izan ziren hildakoak, eta asko dira. Baina 272... hamabost aldiz sarraski hura, min hura.

Beste familia batzuek hildakoaren argazkia zeramaten: aitonarena, seme batena... Biktima bakar batek pertsona asko kolpatzen ditu, eta hor ere ikusten duzu minaren benetako neurria. 272 aldiz biderkatuta.

Sentitzen ari ginen emozioaren adierazlerik garbienak egun hartan elizan jarritako argazkiak izan ziren. 272 zenbakiek magnizidioaren proportzioa islatzen zuten. Hildakoen aurpegiek pertsonak erakusten zizkiguten zenbaki hotzen atzean. Enpresarentzat lan egiten zuten gizonezkoak ziren gehienak, gazteak. Izan ere, lokatz hiltzailea meatzaritza enpresaren bulegoetara, langileek bazkaltzen zuten jangelara eta auto eta makinetara heldu zen lehendabizi,



Tragediaren puntu garrantzitsuetan kamerak atera eta argazkiak egin zituzten oroimen ekitaldietan esku hartu zutenek.
Martin MANTXO

lanean ari ziren bitartean edo hamaiketako egiten ari zirela.

Azpimarratzeko beste kontu bat: erakutsitako argazki guztiak familia albumetakoak ziren, posatuz ateratzen ditugun argazki horietakoak, irribarre batekin, gure aurpegirik atseginena erakutsiz, lasai-lasai gaudela. Jakina, argazkiok kontraste ikaragarria egiten dute errealitate beldurgarriarekin, herritarrek bizitako esperientziarekin.

Hilotzak helikopteroz eraman zituzten elizaren kanpoko zelaira (futboleko jokatzeko ateak ditu), gorago dagoenez, lokatzaren eraginik jasan ez zuen tenplura. Horietako asko desagertuta egon ziren denbora luzez. 11 lagun oraindik ez dituzte aurkitu. Batzuei hankak eta beselako gorputz zatiak falta zitzaizkien, eta oraindik badaude sailkatu ezin diren gorpuzki asko. Sekulakoa izan zen lokatzaren indarra, dena arrastaka eramateko adinakoa: meategiko eraikuntzak, makineria, azpiegiturak...

NEGAR ZOTINKA

Gorpuak utzi zituzten eremu berean bildu ginen haiek omentzeko elizkizunean. Eskutik heldu genion elkarri. Hitzak, kantu ederrak, Brasilen bakarrik dakiten bezala, eta minutu bateko isilunea, betiereko bihurtu zena. Minutu bateko isilunean, kanpai hotsak. Orduan ulertu genuen, gure isiltasunean, elkarri lotutako min horretan, hildako bakoitzari

zegozkiola kanpai hots horiek. Badakizu zenbat diren 272 kanpaikada? Asko dira. Gehiegi. Etengabe entzuten dira. Betiereko. Mina handituz joan zen. Negar-zotinek eta malko xurgatuzko koru batek lagundu zituzten kanpai hotsak, tragediaren dimentsioa gogora ekarriz. Amaigabeak egin zitzaizkigun une gogorrok. Senideentzat jasanezina izan zen.

Imajinatzen dut ezerk ezin dituela senitartekoak kontsolatu. Eta min partekatuko egun horren ostean, gutxienez jakingo dute ez daudela bakarrik. Besoak gurutzatuta jarraitzen dugu, egun hartako eguzki ikaragarriaren azpian, aste hartako euri-jasen pean. Momen-tuan sumatu ezin diren gauzak dira.

Lokatz uholdea herriko eraikinen gainera erori zen. Pentsa, gorpu zatiak agertzen dira oraindik ere egun, lokatz metro askoren azpian lurperatuta gertatu baitziren hildakoak, eta, horrek, zaildu egin baititu gorpuak berreskuratzeko lanak. Hasieran hildakoak ehun pasa zirela zabaldu zen eta beste hainbeste desagertu zeudela. Desagertuak, denborarekin, hildako gisa zenbatzen hasi ziren gorputz zatiren bat agertzean. Baina lan horrek aurrera jarraitzen du, eta, egun, oraindik ere 11 pertsona daude identifikatu gabe. Bitartean, familia askok gorputz zati bat baino ez dute lurperatu: hatz bat, esku bat... Horrek guztiak min handiagoa eragiten die biktimei.

KAMERUN

Gizonik gabe bilduta emakumeek
sortutako sexu-musikaren arrakasta

 **JENDARTEA** / Camille MALPLAT (Afp)

Kolonizatzaileek Kamerun hartu aurretik, etnia batzuetako emakumeak egun osoa lanean pasa eta gero elkarrekin biltzen ziren, gizonik gabe. Elkarrekin lasai egonda, abestu egiten zuten. Baita dantzatu ere. Modu horretan atzean uzten zituzten beren arazoak eta frustrazioak, pozteko gauza guztiak ospatzen zituzten bitartean.

Ka m e r u n g o Jaunde hiriburuko Quebec kabaretean giroa bero-beroa dago goizaldeko ordu bata jo berri. Ikusleak garagardoa edan eta edan ari dira, ikuskizuna noiz hasiko zain. Bat-batean, danbor hotsa. Eta gitarrak. Fokuek hiru bikutsi dantzari argitu dituzte. Aldaka mugitzen dute artistek, sentsualitatea lotsagabe adieraziz. «Nahi dut, nahi dut, egin nahi dut», abesten dute, gitarraren, perkusioaren eta teklatuaren laguntzarekin. Letrak oso ausartak dira Kamerunen egoteko. Eta dantza, berriz, probokatzailea. Ikusleak berehala hasten dira barrez. Pozik daude.

Artista horien lanak sustrai sakonak ditu Kamerunen. Musika mota hau emakumeak erabat baztertuta zituzten komunitate patriarkaletan sortu zen, «jendaurrean ozen hitz egitea» debekatuta zuten lekuetan alegia, Jean Maurice Noah etnomusikologoak bere liburuan azaldu zuenez.

Egun bikutsi artistek Kamerun osoko antzeztokiaren erdigunea hartua dute. Azken hiru hamarkadotan izugarri hazi den fenomeno da. Beren farfaila soinekoetan sar-

tuta dotore daude, kamiseta grisak eta zilborrak airean.

Quebec lokaleko hiru izarek Coco Argenteeren pieza arrakastatsu bat eskaintzen dute. Guztiek ezagutzen dute, bikutsiaren egungo erreginetako bat baita Argentee. 1982an herrialdeko erdialdean sortutako abeslariak milioika bisitari izan ditu Youtuben, eskaintzen dituen abestiei esker.


«Zure karrerarengatik, neure bizitza eten egin nuen, zure etorkizunarengatik neure bizitza sakrifikatu nuen, eta, nagusi bihurtu zinenean, utzi egin ninduzun», kantatzen dute, pelbisa modu zorroan mugitzen hasi aurretik. «Gaur euroak erretzen ari naiz, galtzaile! Mendekua hotz zerbitzatzen da», erasten du abeslari gazteenak.

AUSARTENAK, GORA

Adin guztietako emakumeak zutik jartzen dira. Dantzan hasten dira, gizonezkoak txalo egiten eta elkarren artean desafioka ari diren bitartean.

Gizonezkoen artean ere badago ausartik. Horietako hiru antzeztokira igo dira. «Erakutsidazu dantza nola egiten duzun», esaten dio abeslari gazteenak lehenengoari. «Emeki esan dut», agintzen dio hurrengoari. Hirugarre-

Jaunde hiriburuko Quebec kabaretean bikutsi artistek eskaintako emanaldiko hiru irudi.
AFP





na, ausartagoa nonbait, irribarretsu hurbildu zaio dantzariari eta belauniko geratu da, abeslariaren zilborraren aurrean burua mugituz. «Beraz, horrela egiten duzu dantza?», iseka egiten dio artistak ikusleari. Abeslariak gizonari eskaintzen dizkion begiradek guztien algarak eragiten dituzte. Ausartena zirudien gizona bere tokira itzuli da.

Bikutsi abeslari gehienek oso argi abesten dute plazer sexualari buruz. «Neska gazteei lotsatiak eta zuhurak izaten irakasten zaien gizarte batean, emakumeok oso argi eta garbi kantatzen dute beren sexu-grinaz», esplikatu du Flora Amabiamina Doualako Unibertsitateko Litera-

tura irakasleak. Orain ia 30 urte, Kamerunen demokrazia eskariek giroa markatzen zuten garaian, K-Tino bikutsi modernoaren amak antzez-tokiak sutan jarri zituen abesti beroekin: «Ekintza 69» eta «Zazpigarren zerua», kasu.

«Beren sexu-grina adierazita, plazer sexuala izateko eskubidea aldarrikatzean, eta, une batez, gizonzkoen pape-
ra mugatuta, emakume horiek sexualitatearen kontrola hartu zuten», Amabiaminak esan digunez.

Adierazpen askatasun hori ez zen guztien gustuko izan, jakina. Herritar batzuen artean eskandalua eragin zuen. Bakar batzuek bikutsia pornografikoa eta immorala dela esan zuten. Hubert Mono

Ndjana filosofoak gaiari buruzko saiakera luze bat eman zuen argitara 1999an: «Sodoma eta Gomorrako abestiak».

Hala ere, sexuaren inguruan hain garbi hitz egiten duten abesti horiek ere bereztat har ditzake herriak eta familia ospakizunetan ere entzuten dira egun. Hor en-

«Zure karrerarengatik, neure bizitza eten egin nuen, zure etorkizunarengatik neure bizitza sakrifikatu nuen, eta, nagusi bihurtu zinenean, utzi egin ninduzun», kantatzen dute

«Gaur euroak erretzen ari naiz, galtzaile! Mendekua hotz zerbitzatzen da», erantsi du dantzari gazteenak pelbisa modu zoroan mugitzen hasi aurretik

tzuten dituzte umeek, eta abesten hasten dira beraiek ere, Amabiaminak adierazi digunez.

Edonola ere, gizarte patriarkaletan kasu gehienetan gertatzen dena pasa zen Kamerunen ere. Adituek diote gizonak izan zirela 1980ko hamarkadan bikutsi modernoak ezagutarazi zutenak. Urte haietan gitarra elektrikoak balafoiaren lekua hartu zuen, hau da, egurrez egiten den xilofonoaren tankerako tresna afrikarraren tokia.

BETI, FANG ETA BULU ETNIAK

Amabiaminak nabarmentzen du «erritmo hau emakumeek sortu zutela». Kolonizatzaileek herrialdea hartu aurretik, beti, fang eta bulu etnietako emakumeak, egun osoa lanean pasa eta gero, elkarrekin biltzen ziren, gizonik gabe, Kamerungo erdialdean eta hegoaldean.

Elkarrekin lasai egonda, abestu egiten zuten. Baita dantzatu ere. Modu horretan atzean uzten zituzten beren arazoak eta frustrazioak, pozteko gauza guztiak ospatzen zituzten bitartean. Askatasun une horietan, senar bortitz batekin bizitzeak eragiten duen minaz abesteko aukera zuten, edo neska gazteei ezkontza arrakastatsu bat lortzeko sekretuak azaltzekoa.

«Neure arbasoen artea transmititzeaz harro nago», dio Olivia Beyene abeslari gazteak Quebeceko ikuskizuna amaitzean. Aurpegia izerditan du eta ikusleak etortzen zaizkio zoriontzera. «Maitasunaz, bortizkeriaz eta injustiziaz arbasoek kantatzen zuten bezala kantatzeaz harro nago. Kamerungo emakumezkoen ahotsa daramat barruan».



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Pentsamenduen poderioz

Historian zehar, gizakia harro sentitu da gogota egiteko duen gaitasunaz. Beren senak gihatzen dituen beste animalia batzuek ez bezala, guk pentsatu egin dezakegu zer gertatzen zaigun. Hala ere, gaitasun hori, berez, aho bikoitzeko arma bat da. Gainerako espezieek ez dute guk bezain gaizki sentitzeko gaitasunik. Hausnartzeko dugun trebetasunak ere mota guztietako arazoak ekartzen dizkigu. Nola da posible gure buruak gaizki sentiaraztea?

Zientzia kognitiboa agertzen denetik aurrera, gogoaren azterketak agerian utzi du gaizki sentiarazten gaituena ez dela gertatzen zaiguna, baizik eta horri buruz pentsatzen duguna eta nola erreakzionatzen dugun. Epiktetok “Enkhiridion” lanean esan zuen bezala, «gizakia ez dute gauzek aztoratzen, gauzei buruz duen ikuspegiak baizik». Pentsatzen duguna ez da gertaera beraren araberakoa, baizik eta hura baloratzeko dugun moduaren araberakoa.

Sarritan ideiei bueltak emateak malenkonian erortzera garamatza (eskua altxa dezala inoiz sentitu ez duenak). Obsesioetan, fobietan, depresioetan eta, azken buruan, sentimenduetan eta grinetan ere pentsamenduak presente daude. Ehunka pentsamendu kaotikoren artean gehiegi pentsatzeak agian egia ez dena baieztatzen eraman zaitzake.

Gure arbasoak arriskuz inguratuta zeudenez, funtsezkoa zen haien bizitzako alderdi negatibo eta arriskutsu guztietan erreparatzea. Modu horretan bakarririk defenda zitezkeen animalia basatietatik, janari eskasia konpondu edo beharra zegoen uneetan babesa bilatu.


Gure garunak antzeko funtzionatzen jarraitzen du. Pentsamendu negatiboen funtzioa garrantzitsuagoa da bizirauteko probabilitateak handitzeko pentsamen-

du positiboak baino. Bizirik irauteko antolatuta gaude, baina ez zoriontsu izateko. Horregatik, pentsamendu negatiboek pentsamendu positiboek baino arreta handiagoa ematea ohi-koagoa eta iraunkorragoa izan ohi da. Berez, negatiboarekiko sensibilizatuago gaude egoera positiboekiko baino. Pentsamendu positiboak ez baitira bizirik irauteko ezinbestekoak.

Hori saihestu nahi badugu, egin dezakegu. Ariketa bat egi-tera doanean, atleta batek badaki gehien kontrolatu behar duen gorputz zatia bere burmuina dela. Gehiegi pentsatzeak eragina izan dezake haren jardunean, edo akats bat ere eragin lezake. Ongizatean eta zoriontasunean irabazteko modu bat gure pentsamenduak eta horien kalitatea kontrolatzea da. Hori lortzea ez da batere erraza “baliteke”, “egin beharko nuke”, “hobe litzateke” bezalako eskema mental zurrunen mende gaudenean. Pentsamendu guztiak ez dira baliozkoak, ezta erabilgarriak ere; izan ere, batzuetan gehiegi pentsatzen dugu

alferrik, eta baliaezinak diren pentsamenduen sorta bat sortzen dugu. Gure pentsatzeko modua ulertzeak eta onartzeak etsipenean eta biktimismoan ez erortzen laguntzen digu. Gure pentsamenduen gaizkide eta sortzaile izaten geratzen bagara, horiek kontrolatzea ezinezkoa dela onartuko dugu, eta, horrela, antsietatea eta kezka sortuz gudan, gu menderatzera helduko dira.

Pentsamenduak gure parte direla eta gure onurarako erabil ditzakegula ulertzea lagungarri izan dakiguke. Gure jarrerak nola pentsatzen eta jarduten dugun zehazten du, horregatik estrategia bat planteatu dezakegu erabakiak hartzearen bitartez, gure pentsamenduen eraldaketaren eragile kontzientziadun eta aktibo izateko. •



Pentsamenduak gure parte dira eta gure onurarako erabil ditzakegu.

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Zaldibar

Zaldibarko gertakarien harira ikusi eta entzun ditugunak esperantzarako baino etsipenerako tarte gehiago uzten digute euskal herritarrok zabortegei handi bat den mundu honetako txoko apartatu honetan erreferentzia berri bat, berdinzalea, justizia sozialean eta garapen eredu orekatu eta jasangarrian oinarritua, sortzeko gai izan gaitezkeela uste dugunoi. Halaxe da, izan ere, etsigarria, Urkulluk hezurmamitzen duen politikagintza eta lidergo eredu.

Izugarria da kolapso ekologikotik gertuegi gauden garaiotan halako hondamendi ekologiko baten aurrean Eusko Jaurlaritzak adierazi duen arduragabekeria, lan istriputzat eta zorigaitz naturaltzat joz gertatutakoa, ardura politiko oro ukatuz. Deitoragarria da ikuspegi askotatik, hildako langile bi eta milaka kaltetu tarteko, lau egunez herritarren eta oposizioko taldeen eskaerei muzin egin eta adierazpen bakar bat, keinu sinple bat egin ez izana. Gertaeren ondorengo lehen agerpen publikoa hauteskundeak deitzeko baliatzea, argibiderik emateko inolako asmorik gabe, erregimen autoritarioenen pareko nagusikeria eta harrokeriaz jokatzeko da. Zer esan komunikabide nagusien boterearekiko subordinazioaz eta PNVk ETArekin komodina atera izanaz.

Modu askotan izendatu daiteke Urkulluren lidergo instituzionalak hartu duen jite hau. Niri horrelako politikagintzak geure herri gaitasunetan duen eragin kaltegarriak kezkatzen nau gehien. Izan ere, sinetsita nago badagoela humus berdinzale bat herri honetan. Badaukagula sen komunitarioa, gaitasun autoeratzaille bat gaurko eta biharko erronka sozialei erantzun berritzaileak emateko, Euskal Herria eta gure egiteko modu komunitarioa munduan posizionatzeko anbizioa izan dezakeena.

Irudi luke Urkulluk anbizio hori itzali nahi duela, hain zuzen. Jendarte otzana nahi du, hauteskundeetan boza eman eta politikaz paso egiten duena. Ez du beste

ezer nahi bera eta herritar bakartuen artean. Mespretxatu egiten du jendarte antolatua, politizatua. Eta haserre plantak eginaz erantzuten du herritarrek edo kazetariak interpelatzeko dutenean.

Euskal egitasmoak –deitu burujabetzea, deitu nazio-gintza; finean, Euskal Herria komunitate gisa autoeratu nahi duen politikagintza– lidergo politiko sendoa behar du. Gure balio komunitario berdinzaleak hauspotuko dituen, inspiratuko gaituen, anbizioa proiektatuko duena, geure gaitasunak askatzen lagunduko diguna. Horren guztiaren kontrako lidergo eredu da Urkullurena. Irudi luke, gainera, planifikatua ere badela, intenzionalitate bat dagoela euskal jendarte intelektualki eta moralki pobretzekoa. Horrela, denak bere horretan jarrai dezan, eta, berak, zabor mendiaren gailurrean, goitik behera begiratuz herritarroi.

Urkulluk jendarte otzana nahi du,
hauteskundeetan boza eman eta politikaz
paso egiten duena. Ez du beste ezer nahi
bera eta herritar bakartuen artean

Herriak Urkullu maite du Urkulluk herria baino gehiago. Ez gaitezen itsutu, ordea. Badakigu zer ez dugun egin behar, nola ez dugun jokatu behar. Badu gauza on bat Urkulluren nagusigoak: kultura politiko alternatibo baten eraikuntzarako tarte zabala uzten duela, lidergo berriak irudikatzeko antitesi bat eskaintzen digula.

Sinn Feinen emaitzek esperantzara lotzen gaituzte, joera bat konfirmatzen baitute: ezkerreko subiranismoa sendotzen ari dela eragile eraldatzaile gisa Europa mendealdean. Hauteskundeak deitu ditu Urkulluk apirilaren 5ean. Hilabete eta erdi eskas alternatiba badagoela ikusarazteko. Garaiko erronka kolosalek bestelako lidergoak eskatzen dituztela adierazteko, herri sektore aurrerazale, abertzale, soberanistekin konektatu eta proiektu partekatu bat eskaintzeko. •

HAIN GERTU ETA HAIN IKUSEZIN!

Postalezko Donostiaren beste aurpegia: etorkin gazte, emakume zapaldu eta etxegabeen bazterkeria gorria

Ez dira ikusten edo ez dira ikusi nahi, ez dira ikusgarri egiten, baina “beste” Donostia horretan dauden errealitate gordinak dira, latzak benetan. Postalezko hiri ederraren bestaldean, gizarte bazterketa egoeran daudenek osatutako pertsona multzo esanguratsua dago. Bizitzari hari batetik helduta bizi dira asko, eta sarri estigmatizatuta daude etorkin izan edo buruko gaixotasunen bat izateagatik. Bizitzaren kolpeak jasandako lagunak dira, ongizatearen trenera igotzerik izan ez dutenak, ahultasun sozialaren fatalismora kondenatuak.

Baina beti dago bihotz oneko jendea, lagunkoia, errukiorra, sufrimendua pairatzen dutenentzat ezinbestekoak direnak. Horietako asko Gipuzkoako Caritasen ari dira lanean, motibazio ezberdinek bultzatuta, laguntzeko indarra akuilu. Boluntarioak dira, beren denbora librea hurkoari ematen diote, emakume baztertuei, etorkin gazteei, etxegabeei. Profesionalekin dihardute eskuz esku zailtasun ekonomiko edo oztopo sozialengatik bizitza duina, lan duina, etxebizitza eskuratzeko aukerarik ez dutenekin.

Caritasek aukera eder bat eskaini digu egoera ezberdin horien aurrean nola lan egiten

 **JENDARTEA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Etixerik eta paperik gabe edo esklabotza modu berrien adierazgarri diren lan baldintzen menpe, badira Donostian bazterketa sozial gorrian daudenak, askok ikusi nahi ez izan arren. Egoeraren jakitun, hiru arreta gune eta laguntza programa ahaltsua prestatu ditu Caritasek. Ateak ireki dizkigu errealitate hori ezagutzeko.

duten ikusteko, bertako langileekin hitz egiteko, errealitate hortaz ikasteko. Aukera horren ondorioz sortu dira ondorengo letrak.

SAREAN LAN EGIN

Hiru gune bisitatu genituen: Miriam proiektua, bazterkerian eta ikusi nahi ez diren esklabotza forma berrietan

diharduten emakumeen entzute eta arreta gunea; Hotzaldi gunea, etorkin gazteentzako aterpea eta berotasuna ematen duen gaueko zentroa; eta Aterpe, etxegabe eta bazterkeria larrian bizi direnen eguneko eta gaueko gunea. Hiru guneotan astindu zitzaizkigun barrenak, hiru guneotan ezagutu genuen jende zinez esku zabala, hiru guneotan estimatu genuen sarean egiten duten lana, pertsonala eta pertsonalizatua dena, pertsona bakoitzari bere prozesu eta helburretan laguntzea helburu duena, pertsonon oinarritzko beharrak (elikadura, atsedena, higieenea...) asetzea ardatz.

Nikaragua eta Honduraseko emakume kementsuen ereduak indarra ematen du. Beraien egoeraz nola aprobetxatzen diren jakin genuen, barneko etxe-langile zein egoeratan ibiltzen dituzten. Maroko eta Aljeriako etorkin gazteekin lan egiten dutenak ere ezagutu genituen, izan genuen gazteon amets zapuztuen berri, beren egunerokotasun latzarena. Etxegabeak laguntzeko boluntarioen lanak hunkitu gintuen, urteetan pilotutako esperientziak ahalbidetutako funtzionamendu serioa. Eta ekimenok koordinatu eta beste makina bat zuzentzen dituen Caritasen lanaren dimentsioa ulertu genuen.

Esku hartze sozialaren bidez pertsonaren garapena bultzatzeko gizarteratze prozesuokin, bizitzaren lezio eder bat ikasteko parada izan dugu, hausnartzeko, hari asko suelto utzi eta aurrerantzean josteko aukera irekitzeko. Gutariko bakoitza izan daitekeelako arreta zentro eta laguntza programon onuradun. Inork ez daki-gulako bizitzak non eta nola kolpatu ahal gaituen.

Etxegabe eta ahultasun sozial betean bizi direnek Donostiako Amara auzoko Aterpe zentroan duten logela.
Jon URBE | FOKU



GURE ADINEKOAK ZAINTEKO EZIN IKUSIZKO EDO IKUSI NAHI EZ DIREN ESKLABOTZA BERRIETARA KONDENATURIKO EMAKUMEAK

Gipuzkoako Caritasen Miriam proiektuaren xede nagusia ahultasun sozialean dauden emakumeei harrera egin eta aintzat hartzea da. Eta bere egiteko nabarmenena, elkarrizketa pertsonalizatu baten ostean akonpainamendu plan zehatzak abiatzea da, emakume horien sustapen integrala, ahalduntzea eta autonomia handitzea helburu.

Hartara, formakuntza tailerrak antolatzen ditu Miriam programak, geriatría, pediatria, etxeko lanak, defentsa pertsonala, lehen artatzea, sukaldaritza, afektibitatea edo sexualitatea ardatz besteak beste. Oinarritzko tailerrak dira, ordu gutxiakoak, boluntarioek emanak.

Badu Miriam proiektuak bigarren ildo bat ere: lan poltsarena. Izan ere, Donostiako Camino kalean duen egoitzara bertaratzen diren emakumeak, orobat, etxeko eta zaintza lanetan dihardute, batere baloratu ez eta lan eta giza eskubide asko urratzen dituen sektorean.

Zein da, baina, Miriam proiektura hurbiltzen diren emakumeen soslaia? Bada, %95 etorkinak dira, 30 eta 45 urte artekoak. Emakumeon %80 inguru latinoamerikarrak dira, batez ere Nikaragua eta Hondurasekoak. Zama familiar handiak dituzte, maren, emakumeen salerosketen edo genero biolentziatik ihes etorri ziren, ez daukate baliabide ekonomikorik eta asko, Euskal Herrira etorri ahal izateko, zorpetu egin ziren. Ez dute babes sarerik, bakarrik daude, etxerik gabe, administratiboki arautu gabeko egoeran. Inork ez ditu legeztatu nahi, horretarako 3 urte errolatuta egon eta gutxienez urte bateko eta lanaldi osoko kontratua izan behar dutelako. Beraz, kontraturik gabe hasten dira lanean sarri. Horietatik asko astelehenetik igandera, 24 orduz egunean, barneko etxe-langile gisa, soldata minimoa jasoz, nahiz eta



Goian, Caritasen Hotzaldi gunea. Behean, Fatima Garcia, Miriam proiektuaren arduraduna. Jon URBE | FOKU

legeak dioen 950 euroko soldata minimo horri astean 40 ordu eta asteburuetan jai izatea dagokion.

Denetarik dago, jakina, eta badira, badirenez, bihotz eskuzabala duten familiak, baina gutxienekoak dira, gehienek ahalik eta gutxien ordaindu

nahi dute eta ahalik eta gehien eskatzen dute. Hartara, familia asko gerturatzen dira –eta gehienak Jauraritzaren dependentsiarako diru laguntzak jasotzen dituzte– Caritasera emakume desesperatuenak, merkeenak topatuko dituztelakoan.

Etxean lo egiten duen etxeko langilea izatea, aspaldi, aberatsen kontua zen. Egun, gero eta familia gehiagoren kontua da. Emakumeok bilatzen dituzte, etxean lo egingo duten langileak. 950 euro ordaindu eta legea bete dutela uste dute.

Miriam proiektuan hilabetero 100 emakume berri hartzen dituzte, gehienak iritsi berriak, eta gora eta gora doaz zenbakiak, etengabe iristen dira. Beren herrialdera bueltatzen direnak ehuneko oso txiki bat osatzen dute. Nahiz eta lanik ez izan, eskertzen dute segurtasuna, hemen seguru sentitzen dira.

Emakumeok beren bizitzetan ez dituzte gauzak batere erraz izan, bizkar-zorro astun batekin iristen dira gurera, eta, hemen, lan egin, lana eta lana, besterik ez dute egiten. Aisia eta astia ez dira beren bizitzaren parte. Bakardade ikaragarrian bizi dira eta izugarri eskertzen dute akonpainamendua, norbaitek entzutea. Miriam zentzura sartu eta tartetxo bat geratzen dira bertan, epel daudelako, eser daitezkeelako, atsedean hartu, beraien egoeran daudenak ezagutu, Whatsapp taldeak sortu...

Oso emakume borrokariak dira, ausartak, kuraia handikoak. Irabazten duten diru ia dena euren herrialdera bidaltzen dute, eta kapritxorik gabe bizi dira. Patera pisutan sarri, sei pertsonentzako etxeetan hamalau biziz, gelak partekatuz, besaulkietan lo eginez. Edo alokairuarekin negozioa egiten dutenen atzaparretan erortzen dira, alokatu eta laguntzak lortuta, gero gelak berriz alokatzen dituztenak negozioa egin asmoz.

Prostituzioaren munduan erortzeko arriskuan dira asko. Sarri esku luzeko gizonezkoen esanetara lan egiten dute. Langabezian geratzen direnean ez dute ordainsaririk. Egoera latz horretan dagoen sektore bakarra da esklabotza ikusezin berri honena.



Dutxarako bidean, Hotzaldiko erabiltzaileentzako txankletak. Jon URBE | FOKU

HOTZALDI: EPELTASUNA BETI ETORKINEI, AHULTASUN SOZIALA AURPEGIAN BAINO HANKA BUSTIETAN IKUSTEN DELAKO

Aitzol Mendiburu eta Laura Perez Hotzaldiko langileek adeitasunez hartu gaituzte, etxegabeei eta noraezean dabiltzan etorkin gazteei laguntzen jardutearen esperientziaren berri emateko. 18 urtetik gorako 47 etorkin gazte hartzen dituzte Caritasek Ategorrietan duen Hotzaldi gunean, bi emakumezko eta gainontzekoak gizonezkoak, gehienak Maroko eta Aljeriakoak.

Frustrazio eta zapuztutako amets asko soinean daramatzaten gazteak dira Hotzaldin hartzen dituztenak, Ceuta eta Melillatik Iberiar penintsulara jauzi egitea hobekuntza nabarmena izango zela uste baitzuten. Euskal Herrian egoera are hobea zela entzuna zuten, baina, behin hona iritsita, egoera petrala izan ohi da. Aurreikuspen altuegiak zituztela barneratzea ez da erraza.

Non dutxatu jakin gabe, goizetik gauera hankak bustita, urdaila hutsik, begirada eta estigmen jopuntu, latza izan ohi da gazteen egoera. Eta

Hotzaldiren, bertako langile eta boluntarioen laguntzagatik ez balitz, are gaiztotutako litzaieke. Izan ere, Hotzaldin badute aterpea gauean zehar, berotasuna, bihotz oneko jendearen samurtasuna.

Gela handi batean dituzte jarrita 47 oheak eta, batez beste, urtebete inguru ematen dute bertan etorkin gazteok. Ez du erraza izan behar 47 lagunek gela berean lo egitea, arauak errespetatzea, liskarrik ez egotea, baina bi langile eta gaueko guardaren laguntzaz moldatzen dira. Hankak garbitzea beharrezkoa da Hotzaldin, dutxak dituzte, afari eta gosari beroa, erreztzeko gunea, garbitegia, erretzaile gela, egongela...

Goizeko bederatzietatik gaueko bederatzieta Hotzaldiko egoitza utzi behar dute. Etorkin asko ikasten dabiltza: gaztelera, soldadura, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza... Beraz, badute errutina bat, bide bat markatuta. Beste batzuk noraezean ibiltzen dira, epeltasuna emango dien



Hotzaldi guneko 47 oheko logela. Jon URBE | FOKU

liburutegi edo Tabakalera bezalako gune kulturaletan sarri.

Hotzaldiko etorkinak Donostialdeko futbol taldeekin entrenatzen dute, Herrerako meskitara hurbiltzen dira ramadanean zehar, Donostiako Jesuitetako ikasleekin Gabonetako afari partekatua egiten dute, Piraten abordaian parte hartzen dute... Beraz, sozializatze gogoz dira, eta, bai, asko eskertzen dituzte horrelako aukerak izatea.

Jakina pairatzen dituztela estigmak, ohartzen dira Donostiako Parte

Zaharreko taberna batera sartu eta, lapurrak direlakoan, inkontzienteki agian, jendeak mugikorrak nola gordetzen dituen. Mendiburu eta Perez bezalako langile eta boluntarioei hori hitzez adierazi izan diete. Baina, oro har, pozik eta eskertuta daude Hotzaldirekin, lagunak, epeltasuna eta aukerak eskaintzen dizkielako.

Bertako langileek diotenez, unibertsitate ona da Hotzaldi, asko ikasten dute, pertsonaren giza kondizioaz, bizitzaren lezio, emozio eta demontreez.

ATERPE: ETXEGABEEN ETXEA, BAZTERKERIAN DAUDENAK AURRERA EGIN DEZATEN EZINBESTEKO ERREMINTA KUTXA

Amara auzoko Aterpe gunea izan dugu ahultasun sozialaren aurpegi ezberdinak ezagutzeko bidaiaren azken geltokia. Jose Antonio Lizarralde *Pottoko* arduradunak hartu gaitu umore onean, prestutasun osoz. 250 boluntario dabilta lanean bertan, egunean 150 bazkari banatzen dituzte, eguneko zentro eta gaueko harrera gune gisa funtzionatzen duen azpiegitura enblematikoan. Horrez gain, Eutsi gunea ere lekutzen da bertan, ahultasun egoeran denbora luzez egon eta ezin handiak pilatu dituztenen minak arintzeko ardura duena. Muturreko egoeretan egon direnen segimendua, medikazioa eta beste bermatzen duen gune horretan hamahiru pertsona daude egun.

Pottokoren esanetan, Aterperen gidalerro nagusia «pertsona bakoitzak, bere ahalmenen arabera, bide propioa urratzea da». Hotzaldin hanka bustiekin aipatu ziguten bezala, Pottokok ere baieztatu digu sufrimendua hanketan ikusten dela, eta ez aurpegian, azken hori garbitu egin daitekeelako. Hartara, itxaron zerrenda duen Aterpen, janariaz gain –bertako sukaldean boluntarioek prestatutako bazkari xume bezain gozoa dastatu genuen–, besteak beste, dutxak, garbilekua, erizaindegia, ile apaindegia, podologia zerbitzua eta lo egiteko 22 ohe eskaintzen dituzte.

Sarritan, beharra urdailarekin parekatzen da. Eta egia da Aterpen ematen dituzten bazkari asko Elikagai Bankuaren edo Donostiako zenbait dendaren laguntzari esker eskaini ahal direla. Baina Pottokok adierazi zigunez, behar handia dago ere, agian handiagoa, azpiko arropa, galtzerdi, higienerako produktu eta gisakoekin.

Bizitza honetan denok ez gara abiapuntu beretik hasten, denok ez dute tren berdina hartzerik. Eritasun mentalagatik, bikote bereizketa gogor bategatik, dueluagatik edo lana



galtzeagatik ahultasun sozial gorrian amildu direnei, egoerari aurre egiteko «erreminta kutxa» bat eskaintzea dute xede. Bertan daudenetako bat gutariko edonor izan daitekeelako, «Aterpe gizartearen ispilua» delako.

Beren lanaz harro dauden Aterpeko langile eta boluntarioek, urteetan pilatutako esperientziaren eskutik, bat datoz ideia batean: zein zaila den laguntzen dituzten pertsonen kasuan bezala, dena galdu duzunean dena berriz ere eraikitzea. Pottokoren hitzetan, «larreostia» da erronka. Ez da erraza, ez, baina erreminta kutxa egoki batekin, laguntza sare sendo baten bultzadarekin, ez da ezinezkoa ere. Horren adibide eder asko aurkitu daitezke Aterpen. Ez dagoelako fatalismora zertan lotu. Inor ez dagoelako sufrimendura betiko kondenatua.



Goian, Aterpek duen 22 oheko logela. Behean, boluntario bat sukaldean lanean. Jon URBE | FOKU



EXPRAI

iRRITZIA:





Iñigo URIZ | FOKU



IKUSMIRA

MENDAZAKO HIRU HANKAKO ARTEA

Lizarrerriko Berrotza ibarrean kokatua, Mendazako herrian, Hiru Hankako Arteak hantxe daramatza 1.200 urte. Bere magalean hartu omen zuten atseden Zumalakarregik eta bere gudarosteak, bere itzalpean urratu dituzte belaunak herriko hainbat belaunalditako haurrek, bera izan da hainbeste lehenengo muxuren lekuko isila eta ezkontza bat ere ikusia dago hor goitik. Hamasei metro luze eta zortzi metro zabal, hiru hankaren gainean dotore, berez sustraiak dituenak bistan geratu zaizkiolako. Europako zuhaitz ederrena izendatu dezakete orain (bozka ematea erraza da honako helbidean: www.treeoftheyear.org/vote). Eta bertakoentzat hain eder eta berezi dena, munduaren begietara bihurtu da orain eder. Jendearen joan-etorri ugaria sumatzen omen da Mendazan, autoak ikusten dira autoenak ez diren bideetan ere. Eta Europako zuhaitz ederrenetakoa izatearen harrotasuna kezkarekin nahastu zaie orain, akaso hain ederra eta zoragarria baita orain arte ba-ke-bakean egon delako hantxe, Mendazako tontor horretan. Amagoia Mujika Telleria

ITZALA ARGITARA, DENEN BISTARA

Amagoia Mujika Telleria

Bertsoarekin puntadak emanez, musikarekin jantziz, antzerkira gerturatuz, jendaurreko hausnarketa intimoa da «Erik eta Win». Eta jendaurrean egitean, gogoeta kolektiboa pizteko nahia dauka. Ander Lizarralde eta Unai Muñoa beren itzalei begira jartzen dira, normalean erakusten ez duten horri so. Eta, azkenerako, ikuslea bere itzalei begira jartzea lortzen dute.

Duela egun batzuk taularatu zuten lehenengoz «Erik eta Win» ikuskizuna Donostiako Antigua auzoko Lugaritz kultur etxean. Harrera beroa izan zuen eta sarrerak bukatu egin ziren. Beheko irudian, ezker-eskuin, Imanol Kamio, Ander Lizarralde, Unai Muñoa eta Aitor Atxega. Alboko orrialdean, emanaldiko zenbait une. Jon URBE | FOKU


Norbera ez da soilik erakusten duena. Ez gara agertzen dugun argia bakarrik. Itzala ere bagara. Eta, batzuetan, itzala baino ez gara. Ander Lizarralde eta Unai Muñoa beren itzala argitan erakusteko ariketa egin dute «Erik eta Win» ikuskizunean. Duela egun batzuk erakutsi zuten lehen aldiz jendaurrean Donostiako Lugaritzen. Haiek biluzi ziren jendaurrean, barruan gorde ohi direnak bistara agertuz. Eta begira zegoena ere biluzik sentitu zen une askotan, norberak bere miseriak intimoak eta bakarrak bailiran sentitu arren, normalean miseria kolektiboak izaten direlako; eraiki gaituen jendartearen tarratadak.


Lizarralde-Muñoa tandemak «Ez gara Palestinaz ari» taularatu zuen duela sei urte. Haren ondoren dator «Erik eta Win», baina ez da justu haren segida edo bigarren zatia, nahiz eta badiuzten parekotasunak. Oraingoak bi lagun

arteko harremanean sartzen du hatza, hondoraino. Lizarralde, ustez segurua, beti irabazi behar duena, minik hartzen ez duena, «gizon-gizona», negarrik egiten ez duena, beti nahi duena lortzen duena. Muñoa, ahula, sentibera, segurtasunik gabea, bere burua gutxi samar maite duena, irabazteari beldur diona, hurbilegi jartzen dena, «gizon-gizona» ez dena.

Maskulinitate desberdinak ikus daitezke. Izaera desberdinak ere ikus daitezke. Mutur horietatik eraikitako laguntasun bat ikus daiteke, edo zutoin horien gaineko bikote harreman bat. Edo horiek denak batera suma daitezke emanaldian.

Batek, «arrazoia emango dizut, mugitu gabe bazterretik/ diozunaren alde bainago zuk ezer ere esan aurretik». Besteak, «arrazoia kenduko dizut onetik edota txarretik/ diozunaren kontra bainago zuk ezer ere esan aurretik». Horrelaxe, bakoitzak bere ertzetik, ikuslea hara eta hona ibiltzen dute, kulunka deserosoan. Baten





gehiegizko segurtasunak eta bestearen muturreko zalantzak gauza bera ezkutatzen dutelako: onartua izateko beharra. Umorea ere erabiltzen dute begira dagoena xaxatzeko; algara norbera deseraikitzeke erreminta botere-tsua baita.

Oholtza gainera lau lagun agertzen dira; aipatu bi bertsolariak –gidoiaren egileak– eta Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariak. Antzerkia, bertsoa eta musika josten dituzte emanaldian. Asier Sota antzezle eta zuzendariak gidatu du “Erik eta Win” lana eta sumatzen da adituaren eskua, Muñoak eta Lizarraldeko koska bat gora egin baitute aktore lanean. Sinesgarri egiten dira taularatzen dituzten bi pertsonaiak, asko dutelako pertsonatik. Unai Muñoak eta Ander Lizarraldeko dagoeneko ibilbidetxo osatua dute bertso munduan, Eskolartekoan elkarrekin hasi zirenetik. Une hori ere ekartzen dute


oholtzara, umorez. Bertsoaren oholtza gainean proiektatzen duten horretatik asko dute Erikek eta Winek.

Ariketa osasuntsua da norbere itzalari erreparatzea; inbidiaz barrena kiskaltzen sentitzen dituen, gaizkilearen sena sumatzen duena, besteen pozarekin pena hartzen duena... «Zertan ukatu hori ere bagarenik eta nork esaten du zerbait txarra denik?». Alegia, Erikek eta Winek garbi daukate hobea dela norberak bere itzalen kontzientzia hartzea eta horiekin bizitzen ikastea, «guk menpera dezagun eta ez berak gu».

Goran bukatzen da emanaldia, azken egunotan Whatsapp taldeetan ibili den abestiarekin. «Dena hartu nahi dunak ez du eman nahi/ dena ematen duna ez da hartzeko gai/ baina berez ez ote da harremana/ hartu eta emana...». Bai, ariketa osasuntsua da norbere itzalari begietara begiratzea.

Maskulinitate desberdinak ikus daitezke. Izaera desberdinak ere ikus daitezke. Mutur horietatik eraikitako laguntasun bat ikus daiteke, edo zutoin horien gaineko bikote harreman bat. Edo horiek denak batera

Oholtza gainera lau lagun agertzen dira; aipatu bi bertsolariak –gidoiaren egileak– eta Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariak. Asier Sota antzezle eta zuzendariak gidatu du lana eta sumatzen da aktoreen jardunean





Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Enpatia testuinguru digitalean

AEBetan egindako ikerketa batek dioenez, azken hogeitortan gazte estatubatuarren artean enpatia gaitasuna %40 jaitsi da. Gaitasun galtze horretan eragin handia dute teknologia berriek ahalbideratu dizkiguten, edota mugatu dizkiguten, komunikatzeko eta harremantzeko era berriek. Izan ere, ukaezina da gure haur eta nerabeek geroz eta gazteagotatik eskura-eskura dituzten teknologia berriek iraultza ekarri dutela artean ezagutu, eta praktikatu, ditugun harremanak eraikitze moduetara.

Inolako zalantzarik gabe, teknologia berriek, eta pantailek, batez ere, denbora berriak eskatzen dizkigute. Denboraren berrantolaketa egin beharrean aurkitu gara, askotan, lehen egiten genuen zerbait aparte utziz. Lehia horretan, tarte egite horretan, idatzizko komunikazioak indarra kendu dio ahozkoari.

Aurrekoan Myrta Chokler aditu argentinarrak esandakoak aipatu genituen, «teknologiek inbaditu gaituzte eta eraldatzen ari gara. Mundu birtualak, existitzen ez denak, liluratu gaitu». Era berean, haurren garapen emozionala eta psikologikoa aintzat hartzen badugu, haur txikiak «ez du inongo aukerarik fikzioa errealtatetik bereizteko» ohartarazi zigun. Hortaz, gero eta gehiago komunikatzen bagara bestea aurrean izan eta ikusi gabe, gero eta aukera gutxiago dugu besteen lekuan jartzeko. Eta enpatia hori da, hain justu, besteen lekuan jartzea, bestearen azalean.

Enpatia urritzen joan ahala, gero eta aukera gehiago sortzen dira mina eragiteko, errazago azalduko da bazterkeria. Badirudi enpatia txikitzen den neurrian handitzen dela zi-

berbullying-a gertatzeko aukera: ez baitugu ikusten besteak zer sentitzen duen esaten/idazten dugunarekin.

Iratxe Esnaola Arribillaga informatika ingeniari, hezkuntzan doktore eta unibertsitateko irakaslearen jakin-min iturri izan da haurren eta nerabeen arteko jazarpenaren gaia. Ondorio batera iritsi da bera, «enpatia da teknologien erabilera arduratsuen giltza». Finean, «balioetan hezteak litzateke gakoa, teknologia gabeko aroan bezala, baina beste testuinguru batean gaudela abiapuntu hartuta». Izan ere, teknologiaren aurrekoa izanik ere jazarpena, aukera berriak zabaldu zaizkio.

Esnaolak idatzi zuen «Enpatia teknologien erabilera arduratsuan» artikuluan zioenaren arabera, teknologia berrientzat denbora irabaztea, sormenerako eta irudimenerako denbora galtzearen bizkar egiten da. Beste ikerketa batzuek, berriz, pantailei denbora egiteko bazter uzten diren jarduerak zerebroaren eta intelektualitatearen garapenerako ezinbestekoak direla erakutsi dute.

Oharkabea, bizitza errealtatearekin konexioa galtzen ari den garai hauetan, «fisikoki hemen nago baina hemen ez dagoen jendearekin egon nahi dut, nire mundu errealean ez daukadana nahi dut, pantailetan aurki dezaket. Horrek guztiak izugarritzko eragina du egunerokotasunean», Esnaolaren esanetan. Facebook, Twitter, Instagram eta beste zenbait aplikazio gehiagoren martxa jarraitu nahi dugu aldi berean. Eta, gainera, kokatuta nagoen testuinguru fisikoan arreta jarri behar dut, erabakiak hartu, kudeatu... Ez al dira buru gehiegi txapel bakarrarekin estaltzeko? Pentsa zer den hori hezkuntzaren esparrura ekarrita!

Ikerketetan aurkituko dugu erantzuna berriro, denean egoteko gai garela pentsa dezakegun arren, frogatu dute arreta banatuta dagoen unetik arreta ez dagoela inon. Hala eta guztiz ere, batzuk zein besteak bat datoz ideia berarekin: galera horiek berreskuragarriak dira. Espozio denborak erregulatzean dago koska.

Guregandik jasotzen ari diren eredua, zain egotea, mugak, balioak, harremanen kalitatea, arreta. Bada hamaika hari nondik tira egin. Hezigune batzuetan hasi dira gurasoak bildu eta seme-alabek pantailekin zein harreman izatea nahi duten hausnartzen. Horra hor gakoa: erabaki zein harreman izan nahi dugun mugikorrarekin. •



Teknologiarekin zein harreman izan nahi dugun erabakitzea gako da. GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Aurre hartu

Kontzertu batera sartu ahala gutako askoren lehen galdera izan ohi da: «zer talde ari da jotzen?». Jarraian, «non dago taberna?». Eta, ostean, «aurrerago joango gara?, aurre-aurrera?». Orain dela oso gutxi aspaldiko hainbat lagunok topo egin genuen

hamarkada batzuk dela hara eta hona jarraitzen genuen musika talde baten ezusteko kontzertu borobilean. Bere sasoian haien kantu eta hitzak erabat barneratu genituen eta urte asko pasa arren agertoki parean jarritakoan azaleratu ziren berriro estalita ziruditen iraganeko sentsazio gogoangarri guztiak. A ze gozamina! Horrez gain, garrantzitsuena izan zen lagunok halako testuinguruan berriro batzea. Zer da, bada, musikak eragiten diguna? Barruko sentsazioen askatzea edo berpiztea, iradokitzen digun hori gogora ekarri zein ospatzea, eta, tonu berean hori guztia beste batzuekin partekatu ahal bada, askoz hobeto!

Kontzertua aurre-aurrean eta adi-adi ikusi genuen, batzuek ohitura dugun moduan eta beste batzuek horixe berreskuratuz, bejondeiela! Jakina, bero dezentekoarekin, kearekin eta giro paregabearekin. Arratsalde bazen ere, gau itxura handia zeukan hark eta ospakizuna ere halakoa izan zen, erabatekoa: gu moduan, ikusle guztiak pozarren, irribarre erraldoiarekin, eta taldea ere oso gustura, bestelako presio nazkanteetatik kanpo musikaz, kantuez eta momentuaz disfrutatzen. A ze luxua!

Gogora ekarri dut orain gutxi hainbeste disfrutatutako pasarte hau, ezbairik gabe eman genuelako pausoa guztiok gorputzak hala eskatuta. Izan ere, hori horrela izanda ere, azkenaldian bestelako kontzertu batzuetan behin baino gehiagotan ingurukook zalan-tzan ibiltzen gara emanaldiak gradetan jarrita edo, aldiz, pistatik, zutik, ikusteko. Agertokiarekiko hurbiltasunak musika beste modu batean –sarkorrangoan– bizitzea dakar nire ustetan, baina gaur egun eremu itxietan (eta irteteko trabak izan ohi dituztenetan are gehiago) zein halako talde kopuru handiekin ez da be-

ti erosoena izaten jendetza artean zutik orduak eta orduak egitea. Hori, eta baita urteak pilatuz goazela ere...

Horregatik diot aurrean bor-borrean edo atzerago lasai antzean baina agertokiari adi egotea nahiago izaten dudala. Hala bizi izan ditut zuzenekoak, baina askoz hobe leku txiki edo ertainetan badira, zalantzarik gabe. Hori horrela izanda, zur eta lur gelditu nintzen pasa den Hatortxu Rock jaialdian, Atarrabian: publiko gehientsuena oso gaztea zen, eta, egia da, baziren horietatik ehunka eta agian milakaren bat jende agertoki parean adi-adi bertan gertatzen zenari arreta eginenez. Baina “ikusle” gehienek, ordea, agertokiari bizkarra ematen zioten eta borobilean bizi izan zituzten kontzertuak haien lagunarteaz gozatzen, ondokoekin hartu-emanetan. Pentsa liteke taldeez paso egiten zutela, baina ez zen horrela! Zuzenekoa ematen ari ziren taldeak ezagutzen zituzten, baita haien kantutak ere; izan ere, hein handi batean kantuan ari ziren haiek ere, musikariei inola ere begiratu gabe.

Aurrean bor-borrean edo atzerago lasai antzean baina agertokiari adi egotea nahiago izaten dut. Hala bizi izan ditut zuzenekoak, baina askoz hobe leku txiki edo ertainetan badira, zalantzarik gabe

Beste muturrean, baina, pare bat aste dela Donostiako Mogambo areto autogestionatu beteranoan egon nintzen aspaldiko partez. Ohikoa ez bada ere, Oil estiloko hiru talde aritu ziren, indartsuak oraingoan, eta horietako birekin –Cuero bilbotarra eta Rixe frantziarra– sortu zen pogoia itzela izan zen, basatia! Jende oso gaztea zen, baina hil ala bizi ari ziren taldearen aurrean guztia ematen!!

Eta kasu horretan nagusiagook ginenok izkina batean batu ginen kiribilak ez irensteko eta, aldi berean, agertoki pareko ikuskizuna ere gertutik bizi izateko. •

DIRUDIENA BAINO LEGEALDI NAHASIAGO BATEN HOGEI IRUDI (2016-2020)

Ramon Sola

Iñigo Urkulluk PPrekin ituna eginez ireki zuen legealdia, eta Elkarrekin Podemosekin amaitu. Estatus Berriaren promesak bere horretan dirau. «De Miguel kasua» zigorrera iritsi da, eta beste batzuk azaleratu dira, hala nola Osakidetzarena eta Zaldibarko azken tragediarena. Pentsiodunek, Cabacasek edo Puigdemontek ere markatu dituzte azken lau urteok.

1.- GARAIPENA, AZKEN ORDUKO DISGUSTUAREKIN


Iñigo Urkulluren EAJk irabazi zituen 2016ko irailaren 25eko hauteskundeak, tarte handiarekin, baina atzerrian bizi direnen botoen zenbaketak azken nahigabe txiki bat eta legealdirako erabakigarria izan den aldaketa bat ekarri zizkion. Izan ere, EH Bilduk hor lortu zuen 18. eserlekua, EAJ-PSE batura 37 legebiltzarkidetan utziz, hau da, boto bakar batengatik gehiengo absoluturik gabe. Hortik aurrera, Eusko Jaurlaritza arazorik gabe eta ikuspegi kontinuitatekin gobernatzera konformatu zen, baina Urkulluk beti bazkideren bat gehiago bilatzera behartuta ikusi zuen bere burua. Irudian, kargua hartzeko ekitaldia Gernikan, Urkullu bere aurreko lau lehendakariekin batera dela: ezkerretik eskuinera, Jose Antonio Ardanza, Patxi Lopez, Juan Jose Ibarretxe eta Carlos Garaikoetxea. Urkulluren bigarren legegintzaldia hastear zen.



Marisol RAMIREZ | FOKU

2.- TORTURARI ERREKONozIMENDU OFIZIALA, AZKENEAN

Lakuako Gobernuak bere zigilua jarri zion tortura aitortzen duen lehen txosten ofizialari. Laura Pego eta Paco Etxeberria buru dituen Kriminologiaren Euskal Institututuko taldeak egindako lanak (argazkian Jonan Fernandezekin) 4.113 kasu ziurtatu zituen azken hamarkadotan, oraindik irekita jarraitzen duen zenbaketa baten baitan. Krisi txiki bat gertatu zen argazkia aurkeztean, PSEk jarrera negazionista hartu baitzuen lehen unean, gerora zuzentzen joan zen arren errealitatea bere gain hartzeko. Nolanahi ere, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak (PSOErenak) auzitara eraman du Uxue Barkosen exekutiboak prozedura eta talde berarekin Nafarroan antzeko azterketa bat egiteko emandako laguntza.



Andoni CANELLADA | FOKU

3.- ESKUINERA BEGIRAKO AURREKONTUAK

«Egonkortasunaren» argudioa ustiari zuen Urkulluk Alfonso Alonsoren PPrekin legealdiko lehen bi aurrekontuak adosteko. Besarkada horrek, Idoia Mendia eta Eneko Andueza PSEko buruzagien aurrean, Gobernu kontserbadore baten irudia sendotu zuen. Horrez gain, 2018ko maiatzean, Kongresuko talde jeltzaleak erabat ahulduta zegoen Mariano Rajoyren aurrekontuak babestuko zituela iragarri zuen. Hain ahul non, astebete eskas bat geroago, “Gurtel auzia” delakoaren epaiaren harira, PSOE zentsura-mozio bat bultzatu baitzuen, Rajoy zalditik jaitzaraziz. EAJk 180 graduko bira egin eta mozioa babestu zuen. Hor amaitu zen, errebotez, PPK Urkulluri Gasteizen emandako aurrekontu babesa.



Juanan RUIZ | FOKU

4.- BITARTEKARITZA, PUIGDEMONTEN ETA NOREN ARTEAN?

“Procés” entzutetsuaren leherketak Urkullu mobilizatu zuen, baina ez bere kata-luniar homologoei laguntzeko, Estatuarekin bitartekari lana egiteko baizik, nahiz eta bi aldeen arteko desoreka nabarmena izan. 2017ko urriaren 26an, EAE-ko lehendakaria hurrengo eguneko Errepublikaren aldarrikapena galarazten saiatu zen, baina ez zuen lortu Puigdemont konbentzitzea, 155. artikulua ez zela aplikatuko bermatzen ez ziolako. Urkulluren telefonoaren beste aldean nor ze-goen jakitea falta da oraindik, enpresaburuen eskaera batean ezkutatu baitzen. Gertaerak Urkulluren eta Puigdemonten arteko ondorengo harremana zikin-du zuen. Eta baita alderdien artekoa ere: EAJri protesta gutun bat bidaltzera iri-tsi zen JxCat.



Monika DEL VALLE | FOKU



Gorka RUBIO | FOKU

5.- ARMAGABETZEA, BAIONAN; LEHENDAKARIAK, BERTIZEN

2018ko apirilaren 8a euskal historiara igaro da, ETak gizarte zibilaren bultzada-rekin eta nazioarteko ikuskaritzarekin bere burua desarmatu zuen eguna beza-la, Baionan zentratutako jardunaldi batean. Urkulluk prestakuntzetan parte har-tu zuela islatu zuen, baina azkenean distantzia jarri nahi izan zuen eta uko egin zion Lapurdiko hiriburura joateko gonbidapenari. Horren ordeez, Uxue Barkosekin batera agerraldi bat egin zuen Nafarroan, “Bertizko Adierazpena” izeneko aurkezteko, gerora inolako eraginik izan ez duena. Jean-Rene Etchegaray izan zen Baionan izan zen lehendakari bakarra. Ur-tebete geroago, Urkullu bera ez zen Kanbora joan, ETaren amaiera irudikatu zen lekura. Geroago, aldiz, Madrilera joan zen, Espainiako eta Frantziako presidente-ek antolatutako ziurtapen-ekitaldian parte hartzeko, Parisek “ETaren artxiboa” deiturikoa Madrilen entregatu zuen egunean.



Endika PORTILLO | FOKU

6.- JAURLARITZA ETA PATRONALA, BESOZ BESO

Irudia Urkulluk Estatuko CEOeko (Antonio Garamendi) eta Confebaskeko (Ro-ber to Larrañaga) agintari gorenei egindako harrera batean jaso da. Protokolo-tik harago, patronalek EAJ-PSE Gobernuarekiko duten eta publikoki azaldu du-ten asebetetzea adierazten du argazkiak. Harremana oso estua izan da legealdi osoan, eta lehendakariak laguntza eman dio patronalari, behar izan duen guztietan, adibidez, eztabaida fiskal etengabea edo Bizkaiko metalaren greba luzean.



Jaizki FONTANEDA | FOKU

7.- 51.000 SINADURA POBREZIAREN AURKA

Eskubide Sozialen Gutuna erreferentzia bihurtu da justizia sozialaren aldeko eta bazterketaren aurkako borrokan. Pobreziaren aurkako Herri Ekimen Legegi-learen kanpainak 51.000 sinadura bildu zituen, eta horrela erregistratu ziren Gasteizko Legebiltzarrean, oraindik iritsi ez den eztabaida bat eskatuz.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta etengabe eztabaidatu da legegintzaldi honetan, baita etxebizitzaren gaia ere, eta Save the Children bezalako erakundeen datuek, berriz, etxe askotako bazterketaren errealitatea erakusten dute.

8.- CABACAS, TRATU TXAR POLITIKO ETA JUDIZIALAK

Ertzaintzaren pilotakada baten ondorioz gertatutako Iñigo Cabacasen heriotzaga-tatik emandako epaiak ez zuen eskandalua arindu, alderantziz baizik. Kondenatu bakarra egon zen (bitxia bada ere kargatu nahi izan ez zuen agintea, bi urteko espetxe zigorra ezarri zitzaiona), nahiz eta Bizkaiko Auzitegiaren epaiak oso ar-gi utzi karga erabat justifikaezina zela.

Ertzaintzako buru eta polizia-etxeko arduradunak, Jorge Aldekoak, dimisioa eman zuen epailearen erabakiaren ostean. Baina erantzun politikoa, bere osota-sunean, ez da batere asegarria izan familiarentzat; drama Lopezen Gobernuare-kin piztu zen, baina Urkullurenak ez du ikerketa bultzatu. Irudian, Fina Liceran-zu eta Manu Cabacas, Gasteizko Legebiltzarren aurrean.



Endika PORTILLO | FOKU



Jaizki FONTANEDA | FOKU

9.- OSAKIDETZA, DIMISIOAK BAI, ARGIBIDE GARBIRIK ORAINDIK EZ

Legegintzaldiak auzitegietan utzi ditu tramitatzen ari diren Osakidetza Lan Eskaintza Publikoko irregulartasun salaketak. Azterketen filtrazioa gertuko per-sona eta taldeen kontratazioa bermatzera bideratutako sistema oso baten ice-bergaren punta dela uste dute sindikatuek.

Osasun Saileko buruzagitzaren goiko irudiak (Nekane Murga eta Jon Darpon) auziak sortutako tentsioa islatzen du, baina ez du gardentasun handiagorik eka-rrri. Osakidetza kupula ere birmoldatu dute, eta lehiaketa sisteman aldaketak iragarri dituzte, ikertutako espezialitateen prozesuak geldiarazteaz gain.



Luis JAUREGIALTZO | FOKU

10.- OINARRIEI BURUKO AKORDIO HISTORIKOA... EDO EZ

Legegintzaldiaren erdian, EAjk eta EH Bilduk Estatus Berrirako oinarrien akor-dioa sinatu zuten. Ezkerreko independentismoak «historikotzat» jo zuen, Arnal-do Otegik eta Maddalen Iriartek Bilbon egindako agerraldian.

Itunak erabakitze eskubideari buruzko Estatus Berria finkatzera eta Esta-tuarekin harremanak berdinetik berdinerara eraikitze jotzen zuen, baina haren garapena (letra txikia jartzea) adituen batzorde baten esku geratu zen, eta lanek argirik eta takograforik gabe jarraitu zuten.



Jaizki FONTANEDA | FOKU

11.- POLIZIAREN PREPOTENTZIA BIKTIMEN AITORTZAREN PAREAN

EAEn 1978tik 1999ra bitartean izandako «gehiegikeria polizialen» (eufemismo bitxia) biktimak aitortzen dituen legea atal esanguratsu batekin onartu zen Legebiltzarrean. Jusapol polizia plataformako ordezkariak Julen Arzuaga EH Bilduko bozeramaileari oihu egin zioten, «nazkagarria» zela esanez.

Jusapolek PPren babesa izan zuen. Eta txantxa egin zuen Parlamentuko korridoreetan, bere izenaren hasierako “J” hizkia edo pistola baten keinua izan zitekeena eginez. Gertakaria auzitegietan dago, nahiz eta larriena ez diren formak, baizik eta gaiaren mamia: Estatuko Segurtasun Indarrek ez dituzte egindako krimenak beren gain hartzen eta badirudi gainera egindakoaz harro daudela.

12.- TRANSFERENTZIAK, ORAIN BAI?

2015-16ko hauteskunde zikloan Sanchez Moncloara iristearen aldeko apustua egin zuen Urkulluk, baina Rajoyk botereari eutsi zion. 2018ko ekainean erreleboa iritsi zen zentsura-mozio bidez, eta lehendakaria laster hurbildu zen Madrilera 1979tik egin gabe dauden transferentziak eskari nagusi gisa hartuta.

Ordutik igarotako bi minilegislaturek apenas ekarri duten aurrerapenik. EAJ-PSE akordioan orain zehazten da Estatutua 2020an osatuko dela. Filmaren une honetan zaila da sinistea, euskal legee jarritako Estatuaren helegiteak transferentziak baino ohikoagoak direlako oraindik orain.



J. DANAE | FOKU



Juanan RUIZ | FOKU

13.- PENTSIODUNEN BORROKA, MADRILEN ETA LAKUAREN AURREAN

Pentsiodunen mobilizazioa 2018ko urtarrilean hasi zen, ezohiko indarrarekin eta epizentroa Bilbon jarrita. Pentsioen igoera iraingarriak eta PPren Exekutiboak erakutsitako mespretxuak piztu zuten metxa, baina kanpaina berehala jarri zen euskal erakundeei begira ere, pentsioak 1.080 eurora arte osatzea aldarrikatuz.

Urkulluren Gobernua auzia Madrilera eramaten saiatu den arren, eskumenen banaketan tematuz, manifestariak zuzenean interpelatu dute Jaurlaritzak, pentsiodunek Gasteizko Legebiltzarrean egindako mobilizazio honetan bezala.

14.- PRESOK; HUTSUNEAK, AKORDIOAK ETA PROPOSAMENAK



Aritz LOIOLA | FOKU

Urkulluk Sanchezzi presoak Euskal Herriko eta inguruko kartzeletan biltzea proposatuz amaitu du legealdia, aurretiazko baldintzarik gabe. Horrekin bere aurreko proposamena aldatzen du, bai geografiari dagokionez (lehen 250 kilometro aipatzen zituen) eta baita preso bakoitzak jarrera jakin batekin duen loturari dagokionez.

Legegintzaldiak hainbat legebiltzar-akordio utzi ditu, EH Bildutik PSeraino, baina, oro har, espetxe-politika aldatzeko garrantzi gutxiko eragile izaten jarraitzen du Jaurlaritzak. Rajoyk ez zion Urkulluri telefonoa hartu gaiari buruz hitz egiteko, eta Sanchezek ez dio kasu handirik egin oraingoz. Senideek ez diote informazioa emateari eta interpelatzeari utzi, Loiolako argazkikoa bezalako agerraldietan.



Jaizki FONTANEDA | FOKU

15.- MAMI HANDIKO AURREKONTU NEGOZIAZIOA

Pentsiodunen eskaerak funtsezkoak izan ziren Urkulluren eta EH Bilduren arteko aurrekontuen negoziazioan (PPren babesa galdu zuen Jaurlaritzak Rajoyren kargugabetzeari erantzunez). Politikoki berritasun garrantzitsua izan zen, bi hamarkada baitziren horrelako hurbiltze bat entseatzeko ez zela.

Elkarrizketek eduki eta xehetasun asko izan zituzten, ohi baino gardenagoak izateaz gain, eta akordio bat lortzeko zorian egon ziren bi aldeak, baina Lakuako azken eskaintzak ez zituen EH Bilduk ezarritako gutxieneakoak bete. Horren ondorioz, 2019an aurrekontuak luzatuz aritu behar izan zuen Urkulluk.

16.- ESTATUS BERRIA, ADITUEN NAHASMENA

EAJk eta EH Bilduk hitzartutako Estatus Berriaren oinarriak alderdiek izendatutako adituen batzordean bidean galdu zirela erakusten du argazkiak. Jeltzaleen errezeloak eta formatuak berak alde aurretik sortutako beldurrek enkargua desitxuratu dute eta, gainera, ez da akordio sakonik lortu. Hala ere, aipatzen den adostasun-ildo berria EAJ-PSE-EP triangeluak osatutakoa da.

Gaia argitzeko asmoz, EH Bilduk bilera berriak publikoak izatea eskatu du, baina ez du lortu. Estatus Berriaren proiektuak geratuta jarraitzen du eta baliteke Urkulluk hirugarren aldiz jarraian hauteskundeetan banderatxo gisa erabiltzea gaia (EAJren seigarren saiakera da, 2001ean abiatutako Ibarretxe Planari erreparatzen badiogu).



Endika PORTILLO | FOKU

17.- DE MIGUELEN KASUAREN EPAIAK MITOAK ERAITSI DITU

Hamahiru urte arteko kartzela zigorrak ezarri ditu Arabako Auzitegiak azken hamarkadotan Euskal Herrian gertatutako ustelkeria kasu handienagatik. Alfredo de Miguelek (eskuinean) erakundeetan komisioko kobotzako sistema bat ezarri zuten EAJko buruzagi eta militantez betetako sare bati izena baino ez zion jartzen. Sabin Etxeak jarrera kontraesankorra hartu zuen hasieratik, auzitik bereiziz, baina, aldi berean, barkamena eskatuz. Legebiltzarreko eztabaida egiteke dago oraindik, epaia eman eta bi hilabetera. Eta badira zehazteko dauden beste zenbait gauza, De Miguele ondoz lanak edo eskandalua azaleratu ondoren Stoa enpresari kontrata publikoa mantentzea, adibidez.



Jaizki FONTANEDA | FOKU



Raul BOGAJO | FOKU

18.- ELKARREKIN PODEMOS, EZUSTEKO AZKEN BAZKIDEA

Gobernuko arduradun nagusien poza eta Lander Martinez Elkarrekin Podemoseko buruaren deserosotasuna nabari dira joan den abenduaren 27ko irudi honetan. Urkulluren Gobernuak bere azken aurrekontuak onartu berri zituen (aurreko urteko porrotaren ondoren), profil aurrerakoiagoa irudikatzeko aukera ematen zion akordio eroso batekin, bi urtez PPrekin bat egin ondoren.

Elkarrekin eskuak estutu izanak EAJ-PSE-Podemos aliantza ardatz berri bat ixten du hiru erakundetan: alde biko koalizio Gobernua Madrilén, hiru aldeko Gobernua Iruñean (Geroa Bai barne) eta bi aldeko Gobernua Gasteizen.



Raul BOGAJO | FOKU

19.- URTARRILAK 30, ABISU BAT BAINO GEHIAGO

Urtarrilaren 30ean dozenaka mila lagun kalera atera ziren, Eskubide Sozialen Gutunaren deiarekin bat eginez. Mobilizazioa deitzaileak ez jasotzeraino deskalifikatu zuen Iñigo Urkulluk, Maria Chivitek Nafarroan egin zuenaren kontrara, nahiz eta bi erakundeak zeuden interpelatuta, Espainiako Gobernua bezala.

Sindikatuak euren eskaerei gehienez bi hilabeteko epean erantzuteko deia egin diete exekutiboak eta patronalei, bestela «mobilizazioen udaberria» aktibatuko dela adieraziz. Abisu horrek indarra hartu du hauteskundeak aurreratzean.

20.- ZALDIBAR, GIZA HONDAMENDIA ETA KRISI POLITIKOA

Iragan asteko ostegunean Zaldibarko zabortegia erori eta aurretik eraman ziotuen bertako bi langile ere. Tragediak, gainera, tartean diren administrazioen aurreko eta ondorengo kudeaketari buruzko zalantza larriak azaleratu ditu, bereziki Lakuako Gobernuak baimenetan eta ingurumen ikuskapenean duen erantzukizunagatik.

Biktimek eta herritarrek enpatiarik eza salatu dute (Gobernuko kiderik ez zen hurbildu lau egun geroago arte), lehendakaria eta Exekutiboa hauteskundeak aurreratzeko gai horretan bakarrik murgilduta zeudela ematen zuten egun beltz horietan.



Aritz LOIOLA | FOKU

Ez, eskerrik asko

Antton Izagirre

Aurreko mendeetan oinarrituriko ikuspegi klasikoak, gizakia naturarekin bat eginda, entitate oso, bakar eta banaezintzat hartzen zuen. Ideala inondik inora. Kultura, aldiz, janzkera hutsa zen, antzerki bateko mo-zorro baten antzera. Ikuspegi modernoago batetik tiraka, berriz, gizakia, egitura kultural, sozial, psikologiko eta biologiko-ek elkar-eraginean osatzen dute eta guz-tiek haren izate eta portaera baldintza-tzen dute.

Horretan nengoela, azkenaldian eza-guna zitzaidan ahots batek –“gu ertzai-nak gara, zu ere izan zaitezke. Egin zaitez

ertzain”– luzatu dit gonbidapena aurre-ko pantailaren barrunbetik. Entzundako-ari arreta jarri eta engaiatzeko moduko eskaintza izan ote daitekeen hasi naiz hausnartzen.

Egitate horrek eskatzen duen egitura kulturalari niretik begira jarrita, ertzai-nak independentistak kolpatzera bultza-tuak izan daitezkeela noizbait pentsarazi dit –ez litzateke lehen aldia izango–. Kontraesan beldurgarria edonola ere, in-dependentzia zale den ororentzat.

Egitura psikologikoari kasu egiten bal-din badiogu, indarkeria eta izaera oldar-korra, maiz nabarmendu izan dena, ez

dira aproposak nonbait abegikorra dena-rentzat. Alderdi sozialetik begiratuta ere, polizia izatea ez da gehien maite du-gun ofizioa gaurko Euskal Herrian, ez bederen gure inguruan. Egitura biologi-koari dagokionez, adinak esaten dit ez dela niretzat propio zuzenduriko ideia izan.

Egia esateko, gazteek deialdiri aldeko-tasuna emateko izan ditzaketen motibo-ak ez ditut ezagutzen, baina kezkatzen naute. Hala ere, bakarren bat uniforme-aren moztarroak liluratuko balu, parada aproposa luke datozen ihauterietan txantxo janzteko. •

Nola berrosatuko gara horrela?

Miren Azkarate
Badiola

Aurreko hilabeteko nire kolabo-razioa irakurri zenutenek agian gaur bai, gaur umorez beteriko lerroak espero dituzue, baina gaurkoan ere tonu serioa erabiliko dut. Nire gertuko pertsona horri arrazoa eman beharko diot azkenean.

Beste urte batez Torturaren Eguna izan da aste honetan, otsailaren 13an, ostegunean. 39 urte beteko dira aurten Joxe Arregi erail zutela. Bere herrian, Zi-zurkilen, egongo naiz egun horretan (le-rrook lehenago idatziak dira), niretzat

oso berezia izango den mahai inguru batean parte hartzen. Torturaren osteko berrosatzeaz hitz egingo dugu, Joxek eta beste hainbatek egin ahal izan ez dute-na. Guk behintzat kontatu dezakegu eta nik neuk behintzat haien partez ere kontatzen jarraituko dut.

Berrosatze horretan bada puntu oso garrantzitsu bat tortura jasan dugunon-tzat: aitortza. Iritsi ez zaiguna eta, duela egun batzuk nik behintzat argi ikusi du-dan bezala, iritsiko ez zaiguna. Zergatik diodan hain irmo baieztapen hori? Ikusi

besterik ez dagoelako Antonio Gonzalez Pacheco *Billy el Niño* torturatzaillearen zerbitzu orria eskatuta zein izan den UP, PP, PSOE eta VOXen erantzuna: ez. Argi dago asko dutela ezkutatzeko; guk oso ongi dakigu zer den eta zein babes eta inpunitate duten torturatzailleek. Baina horrelako albisteekin niretzat behintzat zaurian gatzat botako balidate bezala da, ez da soilik zauria ez zaidala ixten, bai-zik eta mina areagotzen didatela, gai-nontzeko alderdi politikoak eta gizartea orokorrean isilik dagoen bitartean. •



> Leizeak taldeak Maravillas gaztetxea omendu du

Iruñeko Alde Zaharreko Maravillas gaztetxearen itxieraren lehen urteurrena dela-eta, Leizeak taldeak proiektu hari eskainitako abesti bat egin du. Bideo formatuan grabatu du gaztetxea zegoen eraikinaren aurrean, Marques de Rozalejo jauregiko ate aurrean, hain zuzen ere.

Abestiak Alde Zaharreko gaztetxea goraiatzeko du eta Fermin Balentziaren “Maravi-

llas” abestiari ere erreferentzia egiten dio.

Leizeak dioenez, Maravillas gaztetxea itxiz Iruñeko Alde Zaharra «ilunpean» utzi nahi izan dute, eta egoera hori musikaz nabarmendu nahi izan du taldeak, «gertatutakoa salatzeko tresna egokia» baita musika.

«Isilarazi nahi gaituzte», diote taldeko kideek, «baina borrokan jarraituko dugu».



> Bob Marleyren «Redemption Song» kantuak, 40 urte


Badira 40 urte Bob Marleyren “Redemption Song” abestia argitaratu zela. Hori dela eta, kantariaren kanal ofizialak 2.700 marrazkitik gora erabiliz sortutako animazio bideoklip bat argitaratu du Youtuben.

Datorren urrian beteko da herri musikaren mugarrietakotzat jotzen den abesti horren urteurrena. Marleyk bizirik zela argitaratu zuen azken albumean, “Uprising” izenekoan, sartutako abesti hori inoizko 500 abestirik onenen sailkapeneko



66. postuan dago, “Rolling Stone” aldizkariaren arabera.

Bideoa Marcus Garvey hizlari panafrikanistaren “The Work That Has Been Done” diskurtsoak iradokia da, eta Marleyk zibilizazio beltzaren ahalduzeari egindako ekarpena nabarmentzen du, baita gizateria osoarentzako itxaropen eta suspertzeko nahia ere. Ikuspegi artistikoaren ardatza Marleyren alegiazko munduaren ilustrazioak dira, betiere, hausnarketa sustatzea xede.



> Ikurrina Felipe Borboikoaren aurrean, Kopako finalean?

Futbolzale eta herritar askok amesten dute Kopako finalean euskal derbi bat ikustearekin. Athletic eta Real ikurrinarekin ateratzea edo beste motatako ekimenak ere proposatu dituzte azken egunetan. Hala ere, oraindik finalerdiak gainditzea falta zaie bi taldeei horretarako.

Sare sozialak amets horien erakustoki izaten dira. Azken

egunetan Kortabarria eta Iribar ikurrinarekin eta Felipe Borboikoaren aurpegia agertzen diren irudia zabaltu da. “Herror 404” fanzinekoak izan dira egileak. 1975ko abenduaren 5ean Realeko eta Athleticen jokalaria ikurrinarekin batera zelairatu ziren, artean euskaldunen ikurra legeztatu gabe zegoela.



**Ana Zelaia Jauregi**

EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Berdea da Internet? Eta adimen artifiziala?

Gailu digitalak eskuetan eta Internet sarera konektatuta, gustura kontsumitzen ditugu produktu digitalak: sare sozialak, bideoak, musika... Internet bidez ikusten ari garen pelikula non dagoen oharkabeaz pasatzen zaigu. Hodeia erabiltzen dugu, agian oso kontziente izan gabe, *cloud computing* zerbitzuak eskaintzen dizkigute. Baina hodeia ez dago airean; datu-zentro (*data center*) izenez ezagututako konputagailu multzo handiak dira eta Internet sarera konektatuta daude, beste milaka milioi gailu digital bezala. Ikusten denez, Internet ekonomia global modernoaren bizkar-hezurra da.

Handia da Internet eta azkar hazten ari da. Munduko populazioak gora egiten darrai eta digitalizaziorako sarbidea zabaltzen ari da. Gure kontsumo digital masiboak Interneten trafikoa itzela eragiten du. Harrigarria badirudi ere, trafikoa horren zati handi bat bideoek hartzen dute, datu-zentroren batetik gurera deskargatzen ditugunean edo Internet bidez linean (*streaming*) ikusten ditugunean. Konturatu ala ez, datu-zentroetan dauden eduki digitalak kontsumitzen ditugu. Haiek dira aro digitaleko lantegiak eta energia-piloa kontsumitzen dute, batez ere tenperatura egokian mantentzeko dituzten hozte-sistemek.

Berdea da Internet? Zein motako energiaz elikatzen dira Internetera konektatutako datu-zentroak? Datu-zentroen jabe diren enpresa teknologikoen zeresan handia dute horretan. Greenpeacek urteak daramatza handienei presioa egiten %100 berriztagarri den energiaz elika ditzaten. "Clicking Clean" txostenean zera ikusten da: berdeena Apple da (iMessage, iTunes, Apple Music...). Zerrendan hurrengoak Facebook (Facebook, Instagram, Whatsapp, Messenger...), ondoren nahiko posizio onean, Google (YouTube, Google Play...) eta gero Microsoft (Skype...). Berde izateko urrutia daude Twitter, Netflix, Amazon, HBO, Spotify, Soundcloud, eta abar.

Enpresa teknologikoen handiek konpromisoa hartzea funtsezkoa da Internet berdea izateko. Indarra du-

te gobernuak presionatzeko, eguzki-plaketan eta haize-turbinetan inbertituz energia berriztagarria lehen ez zegoen lekuek eramateko. Asiako ekialdean (Txina, Japonia, Korea...) sektoreko lider diren enpresak (Tencent, Baidu, Alibaba, Naver, Samsung, Kakao...) hedatzen ari dira. Baina, haien datu-zentroak ikatzez eta bestelako erregai fosilen bidez sortutako argindarrez elikatzen dira, nagusiki. Jarrera aldaketa argirik gabe, Internet ez da berdea izango Asiako ekialdean. Bestalde, aldaketa klimatikoa ukatzen duten gobernuak, Donald Trumpenak kasu, ez diote laguntzen Internet berdearen garapenari.

Adimen artifiziala berdea da? Gailu digitalak gero eta adimendunagoak dira. Alexa edo Siri moduko laguntzaile birtualei esker, elkarriketa bidez komunikatu gaitzeko gailuekin. Gertuagoko adibide bat, 2019an argitaratu diren euskararako itzultzaile automatiko neuronalak dira. Ikasketa sakona eta neurona-sareak erabiltzen dituzte eta harro egoteko moduko itzulpenak egiteko gai dira. Donostiako Informatika Fakultateko ikerkuntza taldeen lan ona agerikoa da; ez da harritzekoa bertan Adimen Artifizialeko Gradu berria eskaini izana. Produktu adimendunak erabiltzean, ahaztu egiten zaigu adimen artifizialeko ereduaren entrenamenduak datuen tratamendu masiboa eskatzen duela; energia kontsumo ikaragarria. Superkonputagailuak energetikoki gero eta eraginkorragoak diren arren, energia berdez elikatzen dira?

Adimen artifiziala planetaren arazoei aurre egiteko ahalmen handia duen teknologia da. Klimaren, uraren, biodibertsitatearen, nekazaritzaren eta oro har garapen iraunkorraren alde lan egiteko teknologia ezin hobea da. Proiektu asko daude martxan, eta emaitzak ikusten hasiak gara.

Ikusgarria izan da 2019an Fridays for Future mugimendua izan duen oihartzuna. Gizartearen eta teknologiaren indarrak batu behar ditugu. Esku ezazu energia berdea (Goienerrek eskaintzen du), erabili aplikazio berdeak, eta eskatu Netflixi berde bihurtzeko. Sartu hemen: <http://www.clickclean.org/international/es/>. •



Berdea da Internet?

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



MUNOA SENDIA FUNTSA

PICASSO DONOSTIAN 1934AN

1934ko abuztuaren 29an Gu artearen adiskideen elkarteak inauguratu zuten Donostiako Angel kaleko 13. zenbakian. Garaiko hedabideek albiste hori jaso eta elkartearen inaugurazio afariaren berri eman zuten. Bertan izan ziren, besteak beste, Julian de Tellaetxe, Flores Kaperotxipi, Juan Cabanas Erauskin, Jesus Olasagasti, Eduardo Lagarde elkarteko presidente ere bazena eta Pablo Picasso pintoreak, baita Labayen eta Aizpurua arkitektoak eta Pascual Marin argazkilari nafarra ere. Picasso bere emazte Olga Khokhlova dantzari errusiarrarekin eta bere seme Paulekin joan zen. Pablo Picassok Donostiara egindako bisita hartatik egile ezezaguneko argazki bat dago, "Gernika" obraren egilea Jesus Olasagasti pintorearen ondoan ageri dena, hain zuzen, biak Klub Nautikoan eserita daudela.



historia egin duten dokumentuak,
grafikoak, kronologiak, datuak
eta irudiak

216 orrialde, oparo irudiztatuta

Gaindegia-ren kolaborazioarekin

Euskal Herria 2019 Erradiografia sozioekonomikoa

Demografia, Ekonomia eta Gizartea

#ExpolioGARAri kazetaritzarekin
ere egingo diogu aurre

GARA

11,95€
soilik

*
Harpidedunentzako
eskaintza berezia
8,95€

Hilaren 22 eta 23an,
larunbat eta igandean,
kioskoetan

* Erreserbatu zure alea 94 424 55 56 telefonoan (9:00-15:00)
edo jasoko duzun e-mailari erantzunez. Etxera bidaliko dizugu,
bidalketa gasturik gabe.

